

Erramun Etchebarne

ERRAMUN HARGINAREN ORITZAPENAK

Erri-literatura
Auspoa Liburutegia

Oroipenak



ETOR

30-911

9575

ERRAMUN HARGINAREN ORITZAPENAK

Auspoa Liburutegia
198

Erramun Etchebarne



ERRAMUN HARGINAREN
OROITZAPENAK
(Oroipenak)

Auspoa Liburutegiaren
Zuzendari - Antonio Zavala



EDITORIAL

ETOR

ARGIALETXEA

© EUSKO KULTUR ERAGINTZA ETOR S.A.

Apdo. 193, 20080 DONOSTIA

I.S.B.N.: 84-85527-48-8

D.L.: NA.112-1989

Irar-lanak: GRAFICAS LIZARRA, S.L. - Lizarra

AITZIN SOLASA

ERRAMUN ETCHEBARNE

Nere izeba batekin, nere amaren ahizpa batekin, tanta Aña-rekin, ezkondua zen Erramun Etchebarne.

Hemen bere biziaren parte baten berri eman ez, uste dut lehenik Erramunek leku eta denbora batez lekukotasun emaiten daukula. Mende hunen hastean sortua, asko ikasten dugu hor denbora hartako bizimodu eta ideietaz Ipar alde huntan.

Erramunen familian bederatzi haur badira, eta hauzoko lau etxaldetan hogoi eta hamahiru denetarat! Ez da haurra lehen, baina bai etxe-ko lanak. Kondatzailea bera hameka urtetan igorria da bordalderat, «gau eta egun han egoiteko».

Irakurtzen eta izkiriaturen jakinez geroz, eskola uzten zen.

Ikasten dugu ere zer ziren orduko hauren jostetak: kanpoan atxeman astoen gainerat igan, lasto metak erre zonbaitetan, mendiko aldapak beheiti harri haundi batzu punpeka igorri.

Bertzalde, hamahiru-hamalau behi eta berrogei ta hamar ardi bazkatzen diren etxea gotorra dauka Erramunek! Ikus ere Kattalin astotra bat pago egurrekin heldu goi menditik Lekunberri-rat hamar liberarendako, eta hori zonbait ogiren saria biltzeko! Gainerat, etxeko gauzekin bizi zen jendea: taloak, arto eta ogi irinez eginak, xingarra, arroltzea, gasna... Hola bizi ziren atxoak baziren Alduden ere.

Ikus ere zer lekua daukan gerlak ixtori huntan, eta errex ulertuko du batek euskal abertzalegoa ez dela errexki sortzen eta azkartzen hola markatua izana den lur batean. Erramunek berak baditu anea eta osaba bat hilak 14-ekoan. Bertze hil batzu ere aipatzen ditu. Haren lehen oroitzapena, eskolakoa, hauxe da: «Errientak karabina batekin kartoin bati tiraka ar-arazten gintuen, jinen baitzen eguna Alsace-Lorraine probintziak alemaneri berriz hartu beharko baitziren...»

Oroigarri da ere zer lekua zaukaten jandarmek jendeen bizian: orgetan argirik ez bazen, arraintzan atxemana bazinen eskuz ari, tabako landarea baratzean balin bazinuen, ardien eta behien akitak ez erreglan, orduan jandarmak etxerat eta prozadura!

Gai huntaz finitzeko, gogoaraziko ditut Aldudeko apezak eskola libroa kreatuz herrian sortu kalapitak, nola ere apez hori bera errebote eta trinket baten egiten ari den, material guzia kitorik bilduz: harri, haritz ondo, gisu eta sable!

Bai egintza horiek guziak memento bateko euskal herri baten arpegiak, gora behera mende hunen lehen hirur hogoi urterenak.

Erranen duguia ere bizkitartean denbora heiek ez zirela bakarrik iluntasun iturri, bainan jendeak bazakiela errezebitzen eta egoiten? *Osar*an behi markatzaileak arratsalde osoan lau edo bortz etxetako behiak ditu doi doia markatu, etxe bakotxean jaterat eta edaterat nasaiki eman baitiote.

Nolaz egon seinalatu gabe bertzalde Erramunek aipatzen dituen leku, etxe edo jende izen politak? Altzieta, Bazkazane, Irikinea, Etxebestea, Gasnategi, Bazaiztegia, Ehuletxe, Neketxarre, Harxilondo, Idioinea, Haraldea eta abar... Ai zer izen olerkiz beteak!

Herri literatura baten inportantzia hemen ageri da, orai arte erran dugunaz beraz. Bainan Erramun Etchebarne-n idatziak badu bertzalde berez gatz eta biper. Gudukan artzeko sortua dela iduri du gure Ahastarrak. Ikus: Osaran behi markatzaileak Irikinen ase eder batzu egin ditu; bainan gero, behar ez zen haltza arbola botarik, Etchebarne-tarrek prozadura bat ukanen dute.

Hauzoko bordazainak ahuntza hilen dako, oihana erre eta akusatua da su emaitiaz edo Donibaneko auzitegirat deitua.

Eta «bertzek egin gaxtakeria, guk, inozentek, pagatu behar... gehiago ez ardi ez ahuntzik ez da oihan hortan libro».

Xuberotar artzainak ardiak gain behera igortzen dazko... Ahatik paso bat emanen dio lepo gibelean.

Geroago, bere ofizioan, beti borrokan ari behar du Monlong-en, ezker paretaren egiteko, «ez ginen segur berehalakoan arrañatu!» Denak merke egin behar! Lazkanotegi Aldudeko erre-torarekin zonbait kalapita badu erabilirik. Dio berak: «hamar libera balio zituena nik behar na-kon bederatzieta egin». Monlong eta Lazkanotegi ezagutu dituenak pentsa dezake kataskak ez zitaizkela ez-tienetarik!

Piru beretik hau ere: semea arras ontsa bada kolonelarekin, lieutenanta hartaz jelos da eta «leizorra bezala gaxtatua!»

Mundu huntan gizon guziek guduka bat deramagu, bainan Erramun Etchebarne“k hezurretaraino sartua du injustiziaren ezin jasana. Horrek bizirik larruturik bezala ezartzen du eta beti ibiliko da begirale bila. Hauiek deituko dira: Houcacie kolonela, Ahatsako errienta, Ezpeletako erretora Harignordoki, eta azkenean Kanboko Tardieu medikua.

Bainan barneko su horrek eginen du ere Erramunetz kondatzaile bat paregabea. Oroit naiz, ttipia nintzalarik Alduden, otto Erramun ikusten ginuelarik gure etxerat heldu, zer loriak hartzen ginituen. Baginakien zerbait berri eta harrigarri aterako zaukula eta hari aho xilorat beha egonen ginela! Gehienez, norbeitik egin zuzengabekeria baten kondaira zen. Bere boz ozena-rekin, begiak piztuak, gure sukaldea bete betean hartzen zuen eta gu beretzen!

Bainan ez zen beti bere borroken berri emaiten ari.

Bazakien ederki irri egin arazten, eta izaite eta gertakarieri atxemaiten beren alderdi parregarria.

Irakurleak holakorik atxemanen du liburu huntan.

Ttipia zelarik, hauzoko haurrekin diote: «Ama hila balitz, aita hila balitz, mitxak eros eta hemengo lasto meta guzier su emaiteko...»

Manuel bere artzain laguna, berak dionaz, Don Karlos-en idazkari egona da, bainan irakurtzen ez daki: «Izigarrizko gezurrak kondatzen zauzkitan!» Hau zoin alferra zen erraiteko, kondatzen du nola Manuel-ek bi pipa bazituela, bat haundia ohantzean etzanik pipa bartzeko, bertzea berriz su-pazterrean. Eta aintzina dio: «badut uste xutik baino denbora gehiago pasatzen zuen jarririk!» Ez zituena ere azietak xakurrari milikaraziz garbitzen?

Gai beraz oraino, gogora ardi joare ohointzan ari diren jandarma semeak, edo tabako ostoa ezagutzen ez dituen guarda.

«Apeza nuen apoa bezala zuritua eta ni berriz tomatea bezala gorritua!» Badira holaxet zombait gertakari betikotz galduak, filmatzea urrez pagaturik merexi zuketenak.

Ez badugu hor gure Erramun bere gorputz osoarekin kondari, bederen idatziz zerbait utzi dauku.

1982-an, Otsailean, hil zen Erramun Etchebarne, *Beaulieu* deitzen den Kanboko erietxean, lau urte bere andrea, Aña, galdu eta. Hirurogoi eta hemezortzi urte zituen.

Berak dio bere ama «*Zeruasaritzat...*» kantua emaitan hil zela. Fede haundikoa zen Erramun, bere andrea Aña bezala. Betikotz uros izan ditela biak, justizia osoaren erresuma hortan.

Mixel Itzaina

LIBURU HONEN HISTORIA LABURRA

Ameriketan ginela ézagutu genuen nere emazteak eta nik Joseph Etchebarne eta Urrutiaren alaba gaztena, Marie Therese; eta handik Europara itzuli ginenean, burasoei ekarri genizkien Montreal-etik beren alabaren goraintziak.

Horrela ikusi genuen nola bizi ziran Kanbon Etchebarne senar emazteak, beren seme bakar eta lau alabak munduan zehar barraiatuz geroz, osasunaren gatik Aldudeko herria utzi behar izan zutelarik. Horrela jakin genuen ere, nola Etchebarne aitak maite zuen bere biziko oroitzapenen berak kaier batean izkiribuz emaita.

Izkiribu horiek irakurtzeko eskaini zizkidan; eta ikusirik zein interesgarriak ziren, proposatu nion berak eman zietzon Mixel Itzaina bere iloba euskaltzaleari, honek orraztu zitza eta **Herria**-n agertaraz. Horrela egin zuen, eta badakit zenbat atsegin izan zuen berak hil aintzin, eta bere hurrek ere, oroitzapen horiek inprimaturik ikustea.

Ez dut erraite beharrik atsegin hori berritu digula bakar zenbaiti jakiteak orai liburutan agertuko dirala, beste askok gozatzeño gisan. Gure ama zenak zion bezala, gauzak partituak indar baitu... eta atsegin.

Piarres Charritton.

* * *

Erramun Etchebarne zenaren autobiografia *Herria* astekarian argitaratu zen, 1979-ko uztailaren 19-an hasi eta 1980-ko maiatzaren 1-an fini. Gostura irakurtzen genduen guk aste bakoitze-ko puska. Bolara hartan, aldizkari hori hartu eta handik hasten ginen. Baina zatika argitara eman-dako idazlanekin gerta ohi danez, jendeak ez zion merezi hainbat garrantzi eman.

Bizkitartean Etchebarne'k liburu ederra idatzia zuen. Bai euskararen aldetik eta bai gaiaren aldetik. Bere bizitza kontatu ez-ezik, bere gizaldiaren berri ematen baitigu. Nehondik ere ahal bazen, liburu gisan agertu behar zena, beraz. Eta horixe da *Auspoa* liburutegi honek bere irakurleei gaur eskeintzen diena, atsegingarri izango zaien uste osoan.

A. Z.

ESKOLA

Astelehena, otsailaren hogoia, mila bederatzi ehun eta hiruetan hogoi eta hemezortzia.

Huna nun arribatzen nizan ixtante hiruetan hogoita hamalau urtetara. Buruilaren hamabos-tean beteko ditut. Eta nola, orai nizan lekuan, baitut astia frango ixtorio kondan artzeco, hara nun deliberatu dutan ene bizia nola pasatu du-tan erraitea, sei urtetarik goiti. Handik lehena-gokoaz ez niz orroitzen. Bainan pentsatzen dut ez nintzala segur malurosen!

Zer da bada ene biziko lehen orroitzapena? Eskolako tabloan ikusirik: 1910! Heldu baita, nik sei urte nituela. Eskolan ginuen erreintsa, emaz-teki perestu bat zen, haurrak biziki maite zitue-na. Izena zuen: Madame Maigret. Haur gaztee-nen erreintsa zen.

Erreinta, aldiz, haundienekin zen, *cours élémentaire*-tik hasi eta *certificat d'études* artio. Hau zen izigarrizko oihuak eskolan egiten zituen. Bainan erreint hau eskolatzaile huna zen. Ni ez naiz naski biziki ibili urte bat baino gehiago. Bainan biziki orroitzapen huna atxiki izan dut. Biziki ardura mutikoak ar arazten ginituen karabina batekin kartoin bati tiroka, erranez behar ginuela tiratzen untsa ikasi, zeren jinen zela egun bat, nun beharko baiginuen alemanek guri ebatsi lurra berriz hartu. Hura zen *l'Alsace et Lorraine*.

Denbora hartako Frantziako kartek beltzez markaturik agertzen zuten guri alemanek 1870-ean hartu lurra. Orroitzen naiz beti, harek erakutsi lehenbiziko kantuz bizpahiru hitz: «*Enfants, regardez sur ces cartes ce point noir qu'il faut effacer...*» Eta nunbait gizon horrek untsa ikusten zuen, zeren eta hamalauko gerla izigarri hura atera baitzen eta bazter guziak ezarri sutan eta nigarretan.

ANEA ETA OSEBA GERLAN HILAK

Guk ere baginuen anea bat soldado zena. Tarbes-en bi urte hartan soldado zena eta fite libratzeko esperantzan zena. Bainan maluroski

ez ginuen gehiago ikusi. Orroitzen niz harek ixkiriatu azken letraz: «...ama aita gaixuak, orai partitzera gaza tropa guziak frontera. Galdeiten dauziet otoitz egiteko enetako, bainan fite garhaituko ditugu alemanak...»

Bainan iraun zuen, dakizuen bezala, lau urte orduko gerlak.

Banuen ere amaren anea bat, Otto Bertrand, izigarriko kantaria zena. Ameriketara dotzena bat urte pasaturik jina zena eta ezkondua bi urte hartan Lasara. Alaba bat bazuen, Alice, orai Ziburun bizi dena. Oseba hori ere gerlara joan zen eta han hil izan. Anea eta oseba horrela galdu nituen, hamabortz egunik barne.

Ene etxean bazen ene beste anea bat, Manez, klasa hamaseia. Huna hau ere nun handik fite galdegiten duten gerlara. Ikustekoa zen orduan ene ama eta aitaren nigarra. Nik orduan hamar urte. Ez nuen oraino konprenitzen ahal gure etxekoen pena-dolumina.

Baginen denak bederatzi haurride: bortz mutiko eta lau neska. Eta orai, langileak nor gelditzen ziren etxeko lanen egiteko? Gure aita eta ama gaixoek bazuten penen gainera izigarriko arrangura, etxeko lanen segitzeko. Arreba zaharrenak hemezortzi urte, bigarrenak hamasei, hirugarrenak hamalau eta nik hamar urte pasa.

Eta ene ondotik zen aneak sei urte; gero arreba ttipienak hiru urte.

Etxaldea frango gotorra zen. Ateratzen ziren hamairu-hamalau behi, berrogoita hamar bat ardi eta zaldi bakar batzu. Gainera, baginuen, etxetik hiru orenen bidean, bordalde bat Irati-rako bidean, behereko errekan, Gasnategi deitzen dena. Bordalde horrek baditu bortz pentze, zelaiak. Erdiz erdi pasatzen zaikote ur-erreka bat, frango gotorra eta aberatsa dena arrainez. Bakotxak baititugu handik atera eta zartainean erre eta janak! Urruntxago aipatuko dut berriz gauza hori.

BORDAZAIN JOAN BEHARRA...

Han egon behar zen, bordalde hartan, urte guzian, zeren han atxikitzen baitziren bospasei behi, berrogoita hamar bat ardi, bai eta ere ahuntzak. Hamabortz bat. Han komediak ziren; bordan norbaitek egon behar eta aitak etxean egin ahala baino gehiago lan. Denbora hartan etxeko eta bordako lan guziak eskuz egin behar, eta denak aitak berak egiten zituen eskuz! Anea bigarrena joan eta zenbait denboraz egon ziren bi arreba han azinder kasu egiten, bainan etxean ere falta haundia egiten zuten, bada belarreta-

ko, bada arto jorrako ala ogi jorrako. Orduan zer egin behar zen? Aitak eta amak egin zituzten ondar pentsaketak:

— Hara, orai gure mutiko horrek baititu hameka urte —eskolan nintzan—, hau igorriko dugu; berdin ederki badaki leitzen eta ixkiriitzen.

Horra beraz nun aitak erraiten dautan:

— Ba, orai hi gizondia bai hiz puska bat, hik joan beharko duk bordazain Gasnateira; han untsa izanen hiz ba. Azinder askiko duk untsa kasu egitea eta hiaur ez joan hango poxa hetara.

(Bertze batzuek erraiten dute erroitzak. Ez dakit zoin den eskuaraz hobekienik.)(1)

Badakit beti, erreintari izan nintzala adioren erraiten eta ihardetsi zautala:

— Domaia duk hik eskola kitatzea. Bainan nik igorriko dauzkiat *devoir* batzu egiteko eta liburu zonbeit leitzeko.

Eta horier esker beti zerbait ikasi dut. Bani-tuen ere eskolako lagunak, frangok utzi behar izan baitzuten eskola, zeren eta etxeko lanek egin behar baitzuten.

(1) Frantsesa da hitz hori: poxa. Erran nahi du «bolsa», «sakela bat», «poche».

ESKOLARATEKO BIDEAN HAUZOKO HAURREKIN...

Ni sortua nizan herria deitzen da Ahatsa. Bainan Ahatsak ba ditu bi kartier: Altzieta eta Bazkazane. Ni Bazkazanekoa nintzan. Etxeak du izena: Irikinea. Laborari etxea. Plaza plazan baidituzu lau etxalde. Batto deitzen da Zakuteia, bertzea Etxebestia eta bertzea Etxeberria. Lau etxalde horietako ezkontzak eginak izan ziren zortzi hamar urte barne. Eta pentsa zonbat haur ginen: hogoita hamairu! Hitzemaiten dautzut plaza hartan izaiten zela arrabots frango ilunabarretan!

Goizetan muntatzen ginen eskolara joaiteko dotzena bat haur. Eta gero handik berehala baziren bertze bizpahiru familia. Handik ere jiten zen haur alde bat. Horra nola, eskola Ahatsan baitzen, harara orduko muntatzen ginen hogoi-ta lauzportz haur.

Bizkitartean uste duzie bidean ere ixilik joaiten ginela eskolara? Jainkoak begira, guk asto bat arrapatzetik bidean! Gainean jarri biga edo berdin hiru eta bertze batek makila batekin jo! Eta gero segi aldizka! Zonbait aldiz itzuli zonbaitetan karga makurtu eta denak lurrean! Bainan xutitu eta berriz haste! Zonbait aldiz ber-

din mutiko txarrak elgarrekin joka, bat baino bertzea gehiago denbora ibili zela eta.

Gero, eskolara hurbiltzearekin, bazen bide bazterretik barnaxago borda txar bat. Astoa han ezar eta gero eguerditan etxeratekoan komedia berriz haste! Salbu, batzuitan bordaren jabeak arrapatzen zuen barnean. Orduan gure kabaleria falta! Bainan aldi batez erreintak jakin zuen nola ibiltzen ginen astoekin eta denak puni ezarri ginituen. Eta belauniko! Bai, bainan urran xantzan berriz haste! Bertze aldi batez asto baten jabeak arrapatu ginituen. Hitzemaiten dautzut beharrietako hotza ekendu zaukula! Eta mutikoak ala neskak, denak elgar iduriak izanki!

BI MUTIKO ETA NEXKA BAT BETI ELGARREKIN...

Gure kartierrean baginen hiru beti elgarrekin segitzen ginenak: bi mutiko eta neska bat. Etxean baldin baginen ere, nihun ez ginauzken, beti nun zen lanjerra eta harat joan behar. Ahasan bada eletrika uzina ttipi bat, eta barraja haren giblean izaiten zen alimaleko osina. Partikulazki ene amak debekatzen zaukun gain gaisetik osin hartarat hurbiltzea. Eta gu harat errabiatuak, han harri botaka artzeko. Orduan

bitxi arrapatzen ginuen etxekoek gu harat joaitera ez uztea, bainan haatik duela aspaldi konprenitu nuen zer den ama baten arrangura.

Haatik behingoaz orroitzen niz: ama oiuhuka ari etxetik eta ikusi ginituen nundik heldu ginen. Ene denboran orroitzen niz zafraldi hartaz! Hura ba bortitza zela, mimen zaharo batekin zangoak berotu zauzkitala! Haatik ez nintzan ixtanpat berriz harat abiatu. Eta ene bertze bi lagunak haratxagoño, murru baten gibelean, biak nigarrez! Hek batere minik gabe egin zuten nigar eta nik segur minarekin!

Aldi batez ere, gure etxeko ondoan, gure amak beharriak xorrotx baitzituen, hauteman zituen ene bi lagunak eleketa, batek bertzeari erraiten:

— Errak, aita hila balitz, ama hila balitz, mitxak eros eta hemengo lasto meta guzier su emaiteko!

Bertzeak:

— Ba, ba, to, sagarrak erre gintzazkek.

Eta alaintso, ixtorio hori bururatu! Beharrik Jainkoaren nahiz aldia hartan falta nintzan.

Ene hauzoak Etxeberria baitu izena, hiru lasto meta izaiten zituen, zeren laborari etxe pixkorra baita. Lehenik ekarri zituzten sagarrak,

gero suia piztu. Su ttipi bat, bainan hura haunditu baitzen ordea, eta hiru metak erre! Hauzoko jendea bildu zen, beldurrez eta etxeari lotzakion, zeren etxea hurbil baitzen. Bainan nork eman du su? Su emaileak sagarrak utzirik eskapatuak baitziren! Hango bereko alaba hura etxean arrapatu zuten. Bainan bertzea? Hura ere etxera eskapatua eta amaren ganbaran, ohearen azpian gordea. Eta handik hura ezin atera-araz; ba eta jandarmeak han zirela eta preso eremanen zutela! Oraino gaurko egunean biak bizi dira, bainan hartan finitu zen lasto metari su emaite hura.

Eta gero zer gertatzen da? Nik ere lagunak utzi beharko!

HAMEKA URTETAN IRATIN BORDAZAIN

Aitak erran zautan:

— Gaixo Erramun, hik orai joan beharko duk Gasnateira. Orai berdin gizon gotorra egin hiz eta beharko dituk hango behiak eta ardiak bazkatu eta mendian alatu. Eta untsa kasu emak azinder. Orroit hadi behar dela bizi eta ez duk nehor orai hi bezik hango behien eta ardien segitzeko.

Ni, bixtan da, fier nintzan halako karguaren ukaitez.

— Gero beharko duk jatekoaren prestatzen ikasi. Ikusten duk amak ere nola egiten dituen taloak. Esnea ukanen duk nahi bezanbat. Behi betroin beltza emanen deat esnetako.

Deitzen ginuen *Moiua*. Behi ttipi beltz bat izigarri maltsoa eta zernahi esne emaiten zuena zen. Erdi hurbildu artio emaiten zuen esnea. Eta hura ukan nuen hameka urtetarik soldado joan artio. Beharbada sinetsiko nuzue, bainan soldado joan nintzalarik pottak eman nazkon. Gero, xahartua baitzen, aitak saldu zuen ehun libera-
rendako. Gaixo *Moiua!*

Bordan behar zen iratzea, bordatik goraxago egiten nuen eta besarka ekartzeko orde, ene *Moiua*-ri egin nakon trapu tzar batzuekila kolier bat. Bi korda kolieretik eta gibelean arbaxka bat, eta aire ekartzen zuen nik behar nuen iratzea behipeen ihartzeko.

Gero aitak erran zautan:

— Beha zak, bihar joanen gituk.

Asto bat azkarra baginuen. Hura kargatzen dugu. Amak ezartzen dauzkit bi gaitzuru arto irin, ogi irin puxka batekin nahasirik, amorea gatik eta eskuz egiteko zailtxagoño izan ziten.

Ezartzen daut ere xingar puxka bat, arroltze zenbait, olioa, gatza eta gasna puxka bat erranez:

— Arreba edo menturaz aita bera jinen zauz-kik ikustera eta berriz jateko kotsiaren ekartzera.

Eta huna nun aita bera heldu den. Egiten daut:

— Eta? Ene bordazain hunek zer dio? Hasi hiza laketzen?

Erran nakon:

— Ba, puxka bat.

— Jarriko hiz, ba. Lanak untsa egiten dazkiaka?

— Ene ustez ba.

— Bon, bon!... —

Eta joan zen pentzetan itzuli baten egitera, ikusteko ea bazkak pusatu zuen eta satorrek makurrik egin zuten. Zeren erakutsia zautan nola behar ziren aitzurrarekin satorrak arrapatu. Eta izigarriko gustua hartu nuen, nun sator bat ez bainuen gehiago uzten pentzetan. Arrapatu eta larrutzen nituen eta arreber etxera igortzen, modako mantorik ederrena egin zezaten. Bainan ez deet haatik sekulan ikusi manto hura finiturik!

Lehenbiziko, aitarekin joan nintzan. Egun hartan aita egon zen gau bat enekin; eta biha-

ramunean, zernahi errekomendazione eginik, hara nun partitzen den, xendra batetik, gaine-ko bidera. Han etxola eta bordari begira egon zen ixtanbat, eni eta bordari beha, eta hara nun estali zuen mendiak. Eni egin zautan halako efetu ttipi bat, eta pentsatzen dut hari ere egin zakola segur efetu. Horrela haur bat erran behar eta han bakarrik uztea etxetik hiru orenen bidean. Gaixo aita! Alde batetik bere bi semen gerlako arrangura, eta bertzaldetik ni ere azinda porroxekin han utzia!...

LEHEN EGUNA ETA LEHEN GAUA BAKARRIK MENDIAN

Huna beraz nun hasten nizan sugai batzuen muntatzen, orroiturik arratsean taloak egin behar nituela. Eguna arras untsa pasatu nuen, baina ilunabarra hasi zelarik jausten, ni hasi nintzan tristatzen, orroiturik etxola hartan behar nuela bakarrik lo egin, ohantzean etzan zumierrik gabe, xurikinez bete matalaz azal baten gainean.

Arras ilundu gabe biltzen ditut ene ardiak eta behiak bordara, eta orori belar puxka bana emaiten. Bainan oraino behar zen sabaian kasu haundia egin, zeren zoladuran baitziren taulak falta.

Hortakotz, ez kasu eginez, irriskatzen zinuen zure belar paketa besoan behitegira erortzea.

Horra beraz nun deizten dutan ene behi betroina. Ekendu nazkon hain segur hiru-lau pinta. Banuen atseko afari eta goizeko askariarendako ausarki. Horietaz kanpo ere edaten nuen esnea frango. Funtsean, denak edaten nituen. Hara beraz azinden bordako lanak eginak. Eta aitak partitzean errana, arratsetan bordako borta eta leihoak zerratzeko, zakur edo hola barnera sar ez dadin. Huna nun partitzen nizan ene esnearekin etxolara. Borda eta etxola nunbait hogoit hamar metra barne ziren. Etxolan sartu eta han bazterrak ilun ziren. Murrutako usaina bakarrik. Amak partitzean bazautan emana lanpa bat, petrolan martxatzen zuena, mitra erronda batekin inguruan, hiru alanbre mitraren zaintzeko. Ez zuen segurki urrun argitzen, baina badakizu frango aldiz hantxe zurezko alki baten gainean artzen nintzala hiru oren leitzen, gibel alde batere eneatu gabe!

Huna, beraz, plantatzen niz suaren egiten, behar ditudala taloak erre. Gero hasten niz orearen egiten. Zurezko aska ttipi bat bazen, Moisen denborakoa segurik. Huna nun ezartzen dutan irin pixka bat, ustez talo baten gaia. Emaiten dakot ura eta huna nun egiten dutan dena gu-

riegi! Eman berriz irina eta ontsa kasu eginez arribatzen niz punduan emaitera. Ba, bainan nik taloak erre gabe, huna suia berriz itzalia. Zernahi denbora pasatu nuen, eskuetan taloak ezin xabalduz. Bainan erran behar dut berehala, handik eta sei hilabeteren buruan, xanpion nintzala!

Amak ere bazakien, bai, taloen eskuetan egiteko, behar zela arto irinari ogi irin puxka bat eman. Horra, beraz, ene bi taloak erreak. Amak eman zautan partitzean metalezko bertz ttipi bat, esnearen egosteko; bainan izigarri lanjerosa zen. Behin goiti abiatu eta etzuen gelditzerik! Hartakotz, behar nuen beti ur xorta bat ondoan atxiki, goiti abiatzen zelarik ixurtzeko. Bertz hura bera izan dut beti. Segur zonbait litra ur badu egosirik! Eta handik hogoita hamar urteren buruan oraino bertza osorik zen.

Huna, beraz, ohera joaiteko tenorea jina, eta badakizu ez nintzala ohean sartzeko biziki fida. Alde batetik aditzen nuen ur handiaren azantza, eta hor nolazpait ohean sartuta, horra nun aditzen dutan huntza, bere kanta *hu-hu-hu* ederenarekin! Bainan ez zitzautan batere pollit. Hots, hara nun untsa edo gaizki, hor gaua pasatzen dutan. Atsegin hartu bainuen argitu zuelarik!

Horra, beraz, gau bat pasatua. Jeiki eta edan lehenik kafea, amak emana partitzean. Erakutsi zautan nola egiten zen. Gero, berriz kurri bordara azinderi jatera ematera, eta ene Moiuari berri-
ez esnea tiratu eta, handik hamarrak airean, igorri mendira alatzera arrats artio. Egunaz ez nuen lanik. Azinder kasu egitea bakarrik, eta eneaten nintzan haunitz.

BESTE BI BORDAZAINEKIN

Gure etxolatik goiti baziren zortzi bordalde, nunbait hiru kilometra goiti beheiti. Lehenbiziko bordaldea Altzieta Basaizteikoa. Han bazen donado xahar bat, bordazain egoiten zena. Izigarriko gizon pollita, ileak xuri xuriak, haurrak konprenitzen zituena eta terrible debota. Izena zuen Ehuletxe. Harek ba zuen iloba bat haunitz urtez Ezterenzubin erretor egon dena. Haren oseba hori ginuen medikua, azinda zonbait eri ginuelarik. Ni soldado joan eta handik zonbait urteren buruan hil izan zen eta segur pena hartu nuen.

Bordalde horren ondotik bazen ezkertxago bertze bordalde bat. Han egoiten zen Xarles Etxebertzekoa. Gizon adinekoa zen. Haren ikustera ere joaiten nintzan haunitz aldiz. Gizon bat zen alegeraia eta seigarren manamendu hortan

arras argitua zena. Bazituen bortz behi eta berrogoita hamar bat ardi. Uda eta negua han pasatzen zituen. Bazuen emazte bat, bera baino hogoi urtez segurik zaharragoa zuena. Hau jiten zitzakon zortzi hamar egunetarik jatekoaren ekartzera. Ardurenian jiten zen bi astorekin. Baño jatekoz kargatua eta bertzea berak azpian ekartzen zuena. Gero arrätsaldeko lauak airean itzultzen zen gibelera, Ahatsa xilora. Orroitzen niz emazte hura gibelerat itzuli eta, frango al-diz joaiten ginen, ni eta Basaizteikoa Domingo Ttipia, erraiten ginakon bezala, Xarles-en ikustera, zeren baiginakien emazteak beti ekartzen zakola bi pintako xahako bat arnoz beterik. Hiruak artzen ginen han xahakotik arno edaten. Hiruen artean erdia edaten balin baginuen, jartzten ginen eleketako trenpean! Gero kurri bako-txa bere etxolara, gure azinden ondotik. Enetzat biziki onak ziren.

Hara, beraz, denbora beti joanki eta ni ere adinean goiti ari eta laketzen hasi nintzan arras untsa.

ORGAK ARGIRIK GABE... PROZADURA

Nunbait hamabi urte bete nituelarik, hasi nintzan etxolan lagun batzuen ukaiten. Lagun

horien ixtorioa luzea da, bainan hain da interesanta nun behar baitut dena ongi kondatu.

Lekunberrin baziren denbora hartan bi jandarma. Baño deitzen zena Hourcable. Hura zen xefa. Bertzeak zuen izena: Brusat. Biak ere biar nesak ziren eta bazuten zenbait aldiz usaia Bazkazanera turnadan jiteko. Eta hek ere artetan egiten baitzituzten prozadura bakar batzu, edo azinda zenbait bidearen gainean arrapaturik, bertze aldi batzuz laborari zorbait Donibane-tik orgekin heldu zirelarik, argia behar baino fitexego finitu, edo berdin oraino ostatuan soberaxko egon pinta erdiaren edaten lagun batekin!

Sekula orroitzen niz aldi batetako ixtoriaz. Orgetan argia itzalia eta huna nun jandarmeak heldu zaizkon gainera. Hek:

— *Et la lumière, monsieur?*

Gizona harritua, nihundik ezin esplikatu konprendi arazteko orduan berean itzalia ziztaikola:

— *Monsieur, monsieur, mais, mais, regardez, touchez tout bero!*

Bai, bai, bainan ez zuen inporta. Hek prozadura egin!... Denbora hartan bazen aise orai baino larderia gehiago jandarmentzat.

Gure ama ere joaiten zen orgetan Donibanera, berdin bera, aitak orgak bi eztera egurrekin kargatu eta, heien saltzera. Haatik hura ezten lagunekin pinta erdiaren edaten gelditzen. Ez Izpuran, ez eta Donazaharren. Egun argiz jiten zen etxera. Bainan hara nun bertze egun batez ere heldu diren jandarme horiek gure etxera, zerbait paperendako, eta orduan gure ama xarmanki baliatu zen jandarma Hourcabie horri partitzean oilasko baten emaiteko. Gerla denbora zen alabainan, eta jatekoa xuhur, eta zena ere txarra. Ogia ere iduri salbearekin egina zela.

BI JANDARME SEME ETXOLAN

Jandarme horrek bazituen bortz haur: hiru mutiko eta bi neska. Eta huna nun egun batez bi mutiko zaharrenak eritzen zazkon, jaunizarekin. Ekartzen dute medikua eta harek erraiten dakote:

— Haur hok biak erituak dira, jateko txarra dutelakotz. Hok behar zinuzkete hemendik igorri laborari etxe zenbaitetara. Etxe horietan bada oraino jateko huna.

Eta horra nun jandarma horri jin zitzakon gogora, nehork hartzekotz haren haurrak, gure

amak hartuko zituela. Eta horra nun heldu den gure etxera eta ama gureari erraiten dako nola zen kasua. Amak berehala segurki baia, bazuela harek hamabi urteko mutikoa mendian, Gasnategin egoiten zena. Han bazela talo eta esnea, gasna eta xingarra, bai eta ere etxean egin ogia.

Eta huna nun bi egunen buruko, arreba zaharrena heldu zautan bere bi mutiko gaztekilan. Zaharrenak, Henri-k, hamabi urte eta bigarrenak hamar urte. Berehala egin ginituen adixkidantzak eta bi mutikoak loriatuak ziren han egoitez. Ni ere bai heiekin. Hastean arreba egon zitautan han zenbait egunez.

Henri, zaharren horrek, bazakien arraintzan amuarekin. Berekin ekarria ba zuen. Zernahi arrain arrapatzen zuen eta zartainean erre eta taloarekin jaten ginituen. Nik ere heiekin ikasituen arraintzan, beroa haundia zelarik, ez baitginuen jandarmen beldurrik. Biak ohartu ginen eskuz ere arrapatzeari.

Haatik ez zaiken oren laurden bat edo hogoi minuta baino gehiago arizan, zeren eskuak moteltzen baitziren. Dena hango bereko iturri uretarik zen.

Hantxe egon ziren bi hilabete enekilan. Ene-tako xarmanki zen, zeren nik eskolan ikasi fran-

tsesa guti baitzen. Heiekin arras poliki ohartu nintzan frantsesari.

Egun guzian ez ginen gelditzen. Eta lan porroxka hek egin eta, beti zerbait ari ginen. Baginuen izigarriko josteta pollita arrapatua. Gure etxolatik eta goiti, mendia da frango xuta, beharbada gaineraino, sei-zazpi ehun metra. Joaiten ginen, burdin barra haundi bat baiginuen, ahal bezain haundiko harri batzuen ateratzerat eta bota beheiti. Loriagarri zen hek egiten zituzten punpeak behereko ur errekaraino. Sekulan ez ginuen guk pentsatzen orduan, han izaiten ahal zela edo arraintzari bat edo azinda zerbait. Beti, dena den, haunitz egunez egin ginuen lan hori.

Eta horra nun egun batez, hola arizan ondoan, joaiten giren etxolara jatera. Eta handik fite bi mutiko horien aita, jandarma, sartzen zauku etxolan. Gurekin jan zituen arrainak, berak arrapatuak ere bazituen. Orduan konprenditu ginuen lanjerra bazela josteta hortan. Baina ez dut uste halere hortako gelditu ginela.

LAU-BORTZ ARDI JOARE

Huna nunbaitan bi hilabete pasatuak eta partitzeko tenorea jina. Mutiko horrek, Henri-k,

joan behar zuen eskoletara Pariseko ondora, Rambouillet infanteriako eskoletara. Han etzen haatik Gasnategiko josteta bera. Han lanean ari behar eta larderia gehixago ere. Eskola hartarik ateratzen dira ofizierak.

Bainan haatik, handik goiti urte oro jiten ziren beren bakantzen pasatzera ene ganat. Aitzineko urte hetako josteta bertsuak erabiltzen ginituen. Salbu, Henri horri gustatzen zitzazkon biziki ardi joareak eta huna nun Salbatoren, hura da gure etxolatik goiti, ikusi ginuen zikiro andana bat biziki joare ederrekin. Azinda horiek ziren Mendibe Jauregiko Ellanderen zikiroak. Zer egiten ditugu? Han mendi xoko batetara biltzen eta lau edo bortz joare ekentzen dazkote-gu. Ene gizona loriatua zen, ixtanpaten joarea bazuela. Ba, bainan baitzen han norbait ikusi ginituena. Eta hara hor nun biharamunian heldu den Jauregiko Ellande. Biak ezarri ginituen harriturik: emaiteko joare hek berehala gibelera, bertzenaz jandarmeak igortzen zauzkigula segidan eta preso har-azten. Orroitzen niz Henrik nola erran zautan:

— Eni, aitag menotak ezarririk preso? Ez, ez, etzuen holakorik eginen ene aitag. Bainan untsa egin dugu itzulirik, zeren hola ez du aitag ere deusik jakinen.

Erraiten zuen joare hetarik baño Rambouillet-eko eskolara eremanen zuela, bainan jabearen eskutan gelditu ziren!...

Huna, beraz, bi hilabeteak pasatuak eta eskoletara berriz joateko denbora jina. Izigarriko pena hartu zuen Gasnategitik joaitea. Bai eta nik ere Gasnategin berriz bakarrik gelditzea. Eta orduan hasi nintzan berriz etxoletara joaiten.

DON KARLOSEN SEKRETARIOA BORDAZAIN!

Basaizteiko etxolatik goiti, Xabaño zen Aintzila Idiondoko borda bere etxola ttipi batekin. Salbu han ez ziren primaderan baizik egoiten ardi antziak eta urteko antxu ahariak eta antxiak baizik, bi hilabeteke bat. Gero, -joaiten ziren maiatzaren hamarra airean, ardiak ekartzen zituztelarik. Joaiten ziren Neketxarrera. Han da Hartxilondoko ondoan. Etxola horren ondoan da Ahatsa Donaiko borda. Hor etxola haundia zen. Baziren bi barne: sukaldea eta ganbara, kolorez eta konforrez biak berdin. Egoiliarra, erran nahi dut bordazaina, nor zen? Español bat. Izena zuen: Manuel. Karlisten denboran jina zen Frantziara. Don Karlosen armada jo zutelarik ihes Frantziara sartua.

Frango usu joaiten nintzan haren etxolara, harekin solastatzera. Izigarriko gezurak kondatzen zauzkitan. Lehenbizian frango sinetsarazi zautan. Bainan gero, erran zautaten kasu egiteko hari. Behin erran zautan karlisten denbora guzia pasatua zuela Don Karlosen sekretario, eta ere, Frantziara pasatu zirelarik tropak, harek, ez arras amor emaiteko etsaiari, berrogoi eta gehiago asto harmaz kargaturik ekarri omen zituela Aldudetik barna. Geroztik konprenditu dut zendako ziren gure eskualde hortan horrenbertze harma zahar eta baioneta harrapatzen, Besta Berriko elizako zeremonietan.

Aldi batez, Aldudeko etxe batean, lan alde bat egin nuelarik, nausiak erran zautan, bazuela etxearen eta bordaren artean, hiruetan hogoi metra luzeko murre bat, haren gainetik ardiak jauzten zitzazkola eta behar zuela metra erdiko sare bat. Ganerretik ekarri zauzkitan hogoita hamar harma zahar piketen egiteko. Erran nakon ea denboran harma fabrika zenbait bazen, eta ihardetsi zautan, denboran karlista tropak bazirela handik sartuak.

Hara ene bordazain Manuel-ek harmak nun utziak zituen. Gero ohartua nintzan ixkiriitzen etzakiela. Orduan egon nintzan nihauren baitan: Ea Don Karlos-ek ere ba ote zakien ixkiriitzen!

Izigarriko pipatzalea zen Don Karlos-en «segeretario» hura. Bazituen bi pipa. Baño haundi bat eta bertzea ttipixagokoño bat. Haundi hura zuen ohean pipatzeko, gider luze batekin. Ohantze hegian bazuen ezarria, hegitik eta goraxagoño, bera etzanik zagolarik pipa hartan finkatu eta etzanik artzen zen pipatzen. Eta ttipi hura, berriz, su bazterrean jarri eta pipatzeko. Badut uste xutik baino denbora gehiago pasatzen zuen jarririk.

Gerla denbora baitzen eta ez baitzen tabako guti baizik, orduan berak biltzen zituen ondo hartako ahago eta asun guziak, lahatzaren gainean idor-arazi eta pipatzeko. Bainan handik zenbait denboraren buruan jakin zuten, Espainia hortan tabako hazia arrapatzen zela. Eta horra zerbait gisa nun eskuratzen duten tabako hazia, eta maiatzean, sekulako prekozonekilan ungarriz eta lur ustelez hundurik ereiten duten. Eta xarmanki sortu. Manuel hori, eta aipatu dutan Xarles hura ere, gaitzeko piparia baitzen, beti hor landatzen dituzte hogoita hamar ondo. Bainan behar da oraino, gero landareak goiti abiatzen direlarik, moxten jakin. Nahiz, behin aski da ikustea. Zernahi ostu emaiten dute. Eta gero, sabaian idor-arazten zituzten.

TABAKO HAZIA EREIN ETA OSTOA SAL

Nihaur ere lan horrek interesatu ninduen eta hara nun deliberatzen dutan hazi horren esku-ratzea eta nihaurek ereitea. Lurra ardi ungarriz ongi hundurik eta inahala prekozionerekin ereiten dut eta xarmanteko landareak heldu zauz-kit. Aita han izan zen batez, galdegiten daut:

— Zer tuk landare horiek?

— Horiek tabako landareak.

— A! Bainan ez nitek nahi pipatzen has hadin.

Zeren berak ere ez baitzuen sekula zigarreta bat erre.

Eta horra nun tabako hosto andana bat ederra jiten zautan. Bainan banuen kasko gibelean ordukotz bertze pentsamendu bat. Egina nuen, horiek denak bildu eta idor-arazi eta salduko nituela ene pipari Manuel espaiñol horri. Bildu nuen ez dakit zonbat kilo. Banuen behi mihise baten bete idor-arazirik etxolako ganer batean, eta tenorea jin zelarik, aipatzen dakot banuela tabako alde bat saltzeko, nahi bazuen, jin zadin ikustera, salduko nakola. Erraiten daut:

— Bai, bai, jinen naiz. Ez bihar, ez, baina berehala.

Ikusi zuelarik halako tabako andana idorturik pipatzeko prest, nik uste zenbait urtez gaztetu zen! Eta galdegiten daut zonbat egin behar nuen. Ez nakon sobera ere galdegin nahi eta erraiten dakot ea bortz libera sobera zitzakon. Ez, ez. Eta berehala pagatu zauzkitan eta huna nun partitzen den behi mihisea tabako hostoz kargaturik, alimaleko paketa bizkarrean. Partitu baino lehentxago galdegiten dakot:

— Orai baduzu ba hor sei hilabeteren tabakoa?

— Bai! Ez, ez. Nik hok erreko ditut bi hilabete ta erdiz.

Beti, dena den, ni gelditu nintzan bortz libera sakelan aberastua. Ez dute oraiko denboretako gaztek konprenditzen ahal denbora hartan sosa zoin xuhur zen eta sosak zer estimua zuen. Manuel bordazain horrek ez zuen urte guzian ehun ta berrogoita hamar libera baino gehiago irabazten janarekin. Dotzena bat urteko mutiko bat itots emaiten artzen zelarik, ukaiten zuen sos bat egunean.

Orroitzen niz beti. Banuen xakur bat, ardi xakur bat, izigarriko ardi xakur huna. Inguru hentan famatua zen. Urte oro egiten zituen lau-bortz kume eta artzainek arrapaka erosten zituzten haren humeak. Eta hek saltzen nituen hamaborz-

na libera. Sos hek denak enetako, zer amerikanoa nintzan ene ustez!

Jin nadin berriz ene tabako horien ixtoriora.

TABAKO EGITEA EZ HAIZU ETA GUARDAK ETXOLARA

Baginakien tabako horren egitea debeku zela, bainan ez baitzen harat guardarik jiten, batzuitan bakarrik akiten miatzeko, ikusteko ea ardiak eta behiak erreglan ginituen. Bainan animaleak mendian baitziren orduan, ez ziren joaiten heien ikustera. Sobera alferrak ziren mendiari gora abiatzeko! Biga jiten ziren eta batek ekartzen zuen arraintzan artzeko amua. Eta hunek balio du kondatzea.

Bordaren eta etxolaren artean banuen tabako landare andana bat eta hain justoki, bezperan tabakoak jorraturik, haitzurra han utzia nuen tabakoen gainean. Eta guarda horiek arraintzako behar zituztela xixariak atera, horra nun bat ohartzen den haitzurra bazela landare horien gainean. Joaiten da bila. Ni harritua:

— To orai pollita haiz!

Xixariak bildu zituzten han berean, ondo hartan. Eta futxo, batere ez ezagutu hek taba-

koak zirela! Atsein hartu bainuen hek handik joan zirelarik!

Handik fite joaiten niz ene bordazain Manuelen ikustera. Hau beti bezala etxolan zen, bere pipa ahoan. Gizona biziki alegera. Alabainan, bazuen istanpaten pipagailua! Huna nun erraiten dautan:

— Txauri, salda xorta bat badut biziki huna egina. Fritura emana dakot, eginik azkon urin garbiarekin.

Ez nakon hartu. Banakien azkonak ere jaten zituela, eta burdinazko azita batzu zituen. Nik uste hek ere, ur beroan garbitzeko orde, xakurrak milikatzen zazkon! Horiek oro hola, hura nik uste arribatu zen lauetan hogoi bat urtetara.

Horra, beraz, Don Karlos-en sekretarioaren bizia, bortzpasei urtez nola ezagutu dutan. Mundu huntarik partitu zelarik, pena hartu nuen. Gizon bat zen arras debota!

OSARAN BEHI MARKATZAILEA

Nik dotzena bat urte nituelarik, ba zen oihantzain bat Osaran izenekoa. Hura ibiltzen zen, maiatzaren lehentsutik, etxez etxe behien markatzen, kontseiluko gizon batekin. Behiak

udan edo lehentxago mendira igorri behar zituztenentzat ibiltzen zen etxez etxe, burdinazko marka bat bizkarrean. Eta gelditzen zen etxeetako etxekandereak ar-arazten zituen burdina horren suian gorri-arazten. Burdina hura suian ezarri eta etxeko andereak lehenik jan-arazten zuen, mahainaren gainean emanik ogia, gasna eta botoila bat arno. Eta gure oihantzainak, ardi gasna hura eta partikulazki arno hura hain arraroak arrapatzen zituen, nun burdin hura orduko oren bat hartan gorritua izaiten baitzen. Bainan berdin zen. Arno ezti goxo harek atxik-arazten zuen bere lagunarekin, botoil hura finitu arte.

Urte oro hura izaiten zen markatzaile. Behit egian sartzen zelarik, behiek ezagutzen zuten eta zenbait sendorroka hasten ziren, hura burdin gorritu harekin ikusten zutelarik. Nik behi haiek maite bainintuen, izigarriko pena hartzen nuen. Haren lanak irauten zuen nunbaitan hiru oren laurden. Anitz aldiz, anartean, etxeko andereak ba zuen prestatua arrultze moleta bat xingar gorriarekin edo berdin bi lukainka xixterrekin. Lana finitzen zutelarik, etxeko andereak edo berdin nagusiak erraiten zeien:

— Txaurte. Jar zaizte. Jan behar duzie ahamen bat. Engoitik gosetuak zirezte.

Nundik ez, pentsa, halako lan aldea eginik! Eta urran etxean berriz komedia haste. Lau edo bost etxe kurritzen bazituzten arratseko... Hain ziren akituak izaiten, nun etxerakoan, anitz aldiz, ahateak ere xuxenago kurritzen baitzuen!... Etxera heltzeko ba zuten hurbil bi orenen bidea. Pentsatzen dut haatik etxeko afariari ez zakotela min haundirik egiten!...

Oihantzain horrek ba zuen ordukotz adin ederra. Menturaz hiruetan hogoi eta bost urte. Bainan oraino hatsa eta zangoak onak zituen eta oraino aisa ibiltzen zen mendian.

HALTZ ONDO BAT MAÑADERA EGITEKO

Gure Gasnategiko bordalde haren ondoan ba da oihan bat. Guk erraiten ginakon beti gobernamenduko oihana. Han debekatua zen arborarik pikatzea, salbu urritza. Eta hain justoki, oihantzaina, aipatzen dutan Osaran hori zen. Ba ziren gure pentzeari kontra haltz ondo batzu, lerdanak eta luzeak. Eta ene aneak, gerlarat joan aintzinttoan, ardi mañadera bat egin behar zuela ta, gustaturik, haltz ondo horietarik bat moztu zuen eta hortaz egin ardi mañadera. Bainan huna handik zenbait egunen buruan nun heldu den gure oihantzaina eta nun arrapatzen duen haltz

ondo hura norbaitek pikatua eta eremana. Hel-
du da orduan xuxen xuxena gure etxolara. Ene
anea han arrapatzen du etxolan eta galdatzen
dako haizkora prestatzeko. Haizkora hartu eta
joaiten da arbola pikatu hartara. Ba dakizue
nola haizkora batean beti hozka bat edo biga,
berdin hiru, izaiten diren (nik ere orduan ikasia
dut!), eta zura pikatzean nola haizkora harek
marrak uzten dituen. Marka horietarik segurta-
tzen da bat haizkora horrekin pikatua den ala
ez. Beti hara nola galdu zen ene anea.

Usaian oihantzain hori ez zen sekulan ho-
rrat jiten, bainan gero jakin ginuen nork sala-
tua izan zen. Luzaz gure etxean ez zuten uste
oihantzain harek prozadurarik eginen ziela. Bai-
nan tronpatu ziren. Harek haltz ondo hura pa-
garazi eta ontsa pagarazi zeien. Haatik handik
goiti ez zuen ez arrultze moletarik jaten gure e-
txean marka egunean, ez eta tragorik egiten!

Oraino frango luzaz hura izan zen hango
oihantzain.

LERA BATENTZAT HAZPA GAIK

Aldi bat oroitzen niz, Gasnategiko borda alde
hartako mutil batek nola laira batzu pikatu zi-

tuen bere nausiarendako, leretako (bertze batzuek erraiten dute linak) hazpak egiteko.

Hazpa horien gainean erabiltzen da delako lera. Hortako behar da ahalaz pagoa eta muturra errondan. Zur horiek arrapatzen dira partikulazki pagondo gazteetan. Bainan egun batez hori ere arrapatu zuen oihantzainak eta prozadura egin zakon. Bordazain hori zen española, adinean aitzinatua zena. Jakiten ahal duzu handik zenbait egunen buruan aditzekoa zela haren katixima! Ez dakit harek desiratu guziak gertatu zitzaizkon; bainan hala gertatu balitzaizkio, segur zerbait behar izanen zuen sofritu!

Eta huna handik zenbait urteren buruan, nun gure oihantzainak ukaiten duen bertze mundurateko galdea, bertze deneri gertatzen den bezala. Eta huna nun jakiten dutan haren hilberria. Eta erraiten dakot bordazain horri:

— Ba dakizu, oihantzaina hil izan da, Manuel.

Eta ihardesten daut:

— Ba ote? Ori, nik egin otoitzekin hasteko ez da segur zeruan sartuko! Ederki dago!

Gaizo Manuel... Dena den, hura joan zen, bainan harrapatu zakoten ordaina eta hain segur ez hobea...

OIHANARI NORBAITEK SU EMAN

Orai haren izena ahantzia dut. Zen gizon gazte bat. Kaskoina. Hamalauko gerla kotsia egina zuena. Badakizue kaskoinak eta eskualdunak ez direla sekula aurrindu soldadogoan. Kaskoinek eta eskualdunek beti elgar ezin ikus. Hura hor oihantzain izendatu orduko, jin zen mila bederatzehun eta hemeretzia. Orduan gerla egin gizon guziak (bizirik zirenak) etxerat sartuak ziren. Nik orduan ba nituen hamabortz urte. Eta ba nituen orduko Gasnategiko pentze horietan anitz murru berriturik. Izigarriko afizionea nuen murru egiten. Eta huna nun, ni hor ari nintzalarik, jiten zitzautan zenbait aldiz oihantzain berri hori, bere lenguaia ederrarekin. Eta nik berriez ez maite biziki frantsesez mintzatzea.

Huna egun batez zer gertatzen zautan. Denbora hartan ba ginituen hamabortz bat ahuntz eta hauek ardura oihan hortan zabiltzan. Eta xuxenez ez ziren alimale horiek libro oihan hortan. Ez eta ere ardirik. Bainan ez zuen nehork kasurik egiten.

Huna aldi batez nola afera makurtu zen. Ba zen gure bordaldetik hurbil bertze bordazain bat. Hunek ez zezakeen ahuntzik sofri eta aldi batez

ene ahuntzik ederrena, urte oro bi pittika egi-
ten zauzkitana, horra nun tiro batez hiltzen dau-
tan. Ba zituen bi ume arrunt gazteak eta gero
nihaurek behi esnean hazi nituen. Izigarriko
pena eman zautan ahuntz harek eta makurra
izan zen enetako. Ba nakien nork hila zuen eta
egun batez, gure etxeko mutilarekin joanik, ha-
rrapatu nuen gizona eta izialdura bat ona eman
nakon. Orduan hortan gelditu zen gure ahuntz
hiltzea.

Baina handik frango fite gertatu zen norbai-
tek oihanari su eman zuela. Orduan ziren haste
azantzak eta ixtorioak. Ohartu nintzalarik sua
ba zela oihanean, joan nintzan lasterka pala ba-
tekin su itzaltzera. Bainan ez nuen erreusitu. Eta
oihan gehiena erre zen. Ba nakien guretako eta
bertze bordazain batzuekako makur haundia
zela, ezen azinda guziak, bada ahuntz, bada ardi,
denak debekatuko baitzituzten. Eta hala gerta-
tu zen. Horiek hola, segur nintzan ere guardia
kaskoin hori ene ganat jinen zela. Eta ni akusa-
tuko ninduela, zeren sua han hurbil lotua bai-
tzen. Eta biziki errex baita hamabortz urteko mu-
tiko baten atakatzea eta akusatzea. Bainan
kontzientzia garbi delarik ez da beldurrik. Eta
nik pentsatu bezala, huna nun ohartzen nizan
ene oihantzaina pentzen gainaldeko bidetik jaus-
ten ari dela eroa bezala, eta nun heldu den xu-

xen ene ganat. Halare egin zautan efetu bat hori ikusteak. Eta huna lehenbiziko hitza zer erraiten dautan, aferaz segur izan balitz bezala:

— *He, tu t'es bien amusé, n'est-ce pas, avec le feu?*

Erraiten dakot:

— *Quel feu?*

— *Oui, bien sûr, c'est toi qui a mis le feu dans la forêt, je le sais.*

Eta berehala erraiten dakot:

— *Non, ce n'est pas moi.*

— *Mais je t'ai vu moi-même.*

— *Ce n'est pas vrai.*

— *Je t'assure que tu n'auras pas fini de payer les conséquences.*

Eta ihardesten dakot:

— *Faites ce que vous voulez, mais ce n'est pas moi.*

Eta erran zautan partitzean:

— *Tu iras en prison.*

Bainan ez zautan solas horrek efetu haundirik egin eta joan zen.

ANAIA GERLATIK JIN ETA

Zenbait egunen buruan, anea orduan jina ziztautan gerla finiturik, Alemanian zenbait egun okopazionean egonik. Gizona azkar eta izigarriko kuraiakoa zen; beti ere, ixtorio horiek denak pasatu eta, huna nun egun batez heldu zautan anea hori jatekoen ekartzera eta nun erraiten dakotan:

— Ikusi duka oihan hori nola erre duten?

— Ba...

— Badakik, orai ni akusatzen nik oihantzainak, baizik eta nik eman dutala suia eta preso igorriko nuela.

— A! Hori erran dauk. To, hobe dik nik ez harrapatzea. Segur nuk enekilan esplikatuko dela.

Eta huna nun partitzen den etxerat. Handik eta hiruzpalau kilometraren buruan bi jandarmekin gertatzen da bidean, eta oihantzain hori ere haiekin izanki. Eta jandarme batek erraiten dako:

— Ta, anea han duzia beti etxolan? Haren ikustera goazi.

Aneak errepostu:

— Han da ba. Heldu naiz berehala.

Urruntxago joan eta baitzen borda bat, han-txe sartzen du astoa eta estekatzen. Eta heldu da berriz etxolara. Orduko,bi jandarma horiek alki batzutan jarriak dira, ni xutik eta oihantzaina ere ba. Berehala jandarma xefak bere zakutik ateratzen du liburu-karnet bat, eta luma harturik hasten da ene interrogatzen. Oihantzainak bere ustez ixtorioa eskuan zuen. Baina ixtorio guzia kanbiatu zen, ene anea etxolan sartu zelarrik, alimaleko makila haundi bat eskuan, gerglan hasteko prest. Lehenbiziko solasak:

— *Bonjour*, jaunak.

Eta segidan erran zakon oihantzainari:

— Zuk, oihantzaina, jakin behauzu ni nizala etxola huntako nausia eta beraz behauzula hemendik berehala kanporat joan, bertzenaz nik ezarriko zitut eta fite.

Guardiak baitzakien ez zuela han sartzeko dretxorik, joan zen segidan. Beharrik. Bainan hau gertatu zen gero. Gure hamabortz ahuntzak oihanean ikusi baitzituen, joan zen segidan haien bila eta, bordara ekarri-eta, gero prozadura bat egin zaukun.

Jandarmek finitu zutelarik inkesta, hiruak joan ziren Lekunberrira. Etxean egon balira hobeki eginen zuten. Ez zituzten zapetak higatuko eta hartu zuten akidura hartuko debalde.

DONIBANE GARAZIKO JUJEAREN AITZINERA DEITUA

Uste nuen afera hortan fini zela. Bainan ez. Handik hamabortz bat egunen buruan huna nun ukaiten duen aneak Donibane Garaziko jujearen aitzinerat agertzeko galdea. Joaiten da eta han berriz gertatzen oihantzainarekin. Segur niz begi ona egin zakola. Jujeak galdegiten dako hura denez Etxebarne. Baietz. Eta gero:

— Zuk erran dazkotzu guarda huni errepostu gaixtoak?

Ihardetsi zakon:

— Ez dakit zer kondatu dautzun. Nik ez dakot, jaun jujea, gizon horri errepostu gaixtorik eman, bainan ba haatik ene etxolatik kanpoan ezarri. Zeren baimenik gabe sartua baitzen. Ni naiz etxola hartako nausia eta ez hori. Eta nausia baniz, segur ontsa pagatua dut. Verdun-eko guduka guziak eginak ditut eta ene osagarriaren erdia han utzia. Orduan nik uste baitutan

dretxoak. Eta, jaun jujea, samurtu baniz, banituen arrazoinak ere, zeren jaun horrek ene anea, hamabortz urtekoa, akusatu du, baizik eta suia harek emana zuela eta preso igorriko zuela. Aise da haur baten izitzea. Eta gainera gezurraren gainean ariz. Egiten balu inkesta ontsa, hain segur hatzeman lezake su emailea.

Eta jujeak orduan:

— Iduri du zuk ba dakizula nor den su emailea.

— Nik pentsatzen dut nor den, bainan ez dut ikusi. Hortakotz behar dut ixilik egon. Zernahi dela, bertzek sua eman eta guk beharko ditugu haren ondorioak pagatu?

Jujeak:

— Etxebarne, orai ba duzu erranik aski. Orai oihantzainaren aldi.

Horrek berehala hartzen du bere buruaren defentsa, erranez harek ez ninduela behin ere akusatu, baina ba interrogatu.

Anea jauzi zen orduan, guardari erranez:

— Orai ukatzen duzu? Orai ikusten dut ez zirela hurbiltzeko ere gizona. *Vous n'êtes qu'un lâche!*

Orduan jujea samurtzen da eta erregela batekin joiten du bulegoa, erranez:

— Etxebarne, ez gira hunat jinak mokoka artzeko, bainan ba gauzen esplikatzeko.

Eta aneak:

— Eta, jaun jujea, horiek direa esplikazioneak?

— Etxebarne, ba duzu erranik aski. Eta orai, otoizten zaitut, zoazi etxerat.

Hortan finitu zen inkesta haren segida.

Beti, zernahi dela, guretako eta bertze artzain batendako ondorio gaixtoak izan ziren, zeren ez baiginuen gehiago ez ardi ez ahuntzik libro oihan hartan. Hara bertzek egin gaixtakeria nun guk inozentek pagatu ginuen eta obligatuak izan ginen, ontsa penarekin, eta guretako makurra zen, gure ardien handik kentzera. Holaxe finitu zen gure suiaren ixtorioa.

HOGOITA HEMERETZI PASA SUKARREKIN, OINEZ ETXERA

Hara, beraz, ixtorioa kondatuz bezala, nun ene adina ere badoan beti goiti.

Manuelen etxolatik goraxago bazen Altzietan Idioineko bordaldea. Hor baziren hiru bor-

da. Baño ardiena, bertzea ahariena, bertzea behiena. Borda hortan egoiten ziren ardurenean bi mutiko gazte. Baño etxeko semea: Beñat, ni baino hiru urte zaharragoa. Mutiko bat, izigarri perestua. Salbu azindendako zen puxka bat bortitza. Bertzea, mutila, Mendibeko, Gilentoinakoa. Ene adin bera. Segur badugu elgarrekin zonbait borroka partida eginik pentze hetan, arropak batere zikintzeko beldurrik gabe!

Hamabortz urte baginuzken bakotxak, zeren eta orroitzen niz nola primadera hartan izan zen *grippe espagnole* deitzen zakoten eritasun tzar bat. Haunitz jende hil izan zen, zahar ala gazte. Eta horra mutiko horrek ere nun arrapatu zuen eritasun hori. Eta ereman zuten mandoan bere etxera, Mendibera. Eta gaizo mutikoa hortik eta zonbait egunen buruan hil izan zen. Izigarriko pena atxiki nuen. Bainan etzen hortan finitu. Horra zenbait egunen buruan nun jartzen nizan ezuntsa. Zenbait egun egonik hola, horra nun gau batez alimaleko sukarrarekin jartzen nizan, arrunt nahasirik. Bezperan arreba Marie jina nuen jatekoarekilan eta hau gauaz arras izitua jarri zen. Biharamunean partitzen gira biak etxera buruz. Oraino harritua egoiten niz, nik nola egin nuen bide hura, hiru orenen bidea, oinez, sukarrarekin xahutua, arrapatu iturri guzietan

edanez! Eta arrebak ez utzi nahi edatera, han berean hilen nintzala. Uste dut denbora hartan medikuek ere debekatzen zuten ur edatea.

Beti, dena den, hara nun arribatzen giren etxerat. Orroitzen niz nola anea Manez arrapatu nuen etxean, gerlatik permisionez jina. Gerla denboran *brancardier* zen, eta hola puxka zerbait trafikatzan baitzen *infirmier*-rekin, harek hartu zautan sukarra: hogoita hemeretzi pasa! Berehala ohean sar-arazi ninduten, eta frango egunez beti ta gaizkiago joanki eta gauaz beti nahasia. Orduan ama puxka bat lotsatu zen eta galdegin zuten Donibane Garazitik mediku bat. Izena zuen: Kasante. Motor txar batekilako bizikleta batean ibiltzen zen. Badakizue denbora hartan medikua ekar-arazten zuten hiltzeko lan-jerra ezagutzen zutelarik. Beti, huna ene mediku xaharra ohearen aitzinean. Orroitzen niz nola amari erran zakon:

— Haur hau arras eri da. Behar zazko fite fitea egunean hiru aldiz mainuak eman, ura odolaren trenpean.

Eta bertzalde, eman zauzkitan pikura batzu. Bainan luzaz egon nintzan eri. Ama gaixoa, beti ni ezin kontsolatuz:

— Orai pasatuko duk fite eta joanen hiz fitexko Gasnategira.

SUGE BIPERAK GIZON BAT AUSIKI ETA NI MEDIKU ORDE

Zenbait hilabete joan ziren hola eta gero atsegin hartu nuen berriz borda alderateko bidea hartu nuelarik. Han arras laketua nuen. Ez dut uste orai bihi bat balaikela gaztetan han egon nahi lukenik, ni egon nintzan kondizionetan...

Fite hasi nintzan berriz ene Gasnategiko lagunen bisita egiten. Huna nun joaiten nizan beraz Idioineko etxolara, Beñat behar nuela ikusi, bainan hain zuzen arrapatu nuen aita zaharra. Nausi hori Aniza Haraldetik jina zen Altzieta Idioinera ezkontzaz. Gizon bat zen perestua. Kondatu gabe ez dezaket utz aldi batetako ixtorioa.

Ene arreba zaharrenarekin ari nintzan pentzetara hungarri emaiten eta gizon hori, pentzen gaineko aldean baitzen xendra bat, heldu zen beraz ardi xakurra gibeletik. Astoaren bila zabilan, espartin xahar batzu oinetan. Eta horra nun pentsatzen ez duelarik, xixta bat zangotik senditzen duen. Behatzen du gibelera eta ohartzenda suge bipera bat joanki zela ihes. Harek zuen ausiki gizona. Harritua heldu da gure pentzera, erraiten dautalarik:

— Haugi, Erramun. Lagundu behar nuk. Sugeak ausiki nik. Ur erreka hortan behar diat ganitarekin ausiki lekua sakitu.

Ateratzen du ganita sakelatik, bainan ez baitzuen hunek haitzurak baino gehiago mozten, joaiten niz etxolara lasterka eta handik ekartzen dut bizar egiteko lama bat eta plantatzen naiz mediku baten orde. Eta huna nun moxten dakotan kurutzean, odola ekarri artio. Hor eken-tzen du berak zapaka odola eta sugearen pozoin hura, jus erdoil baten koloretan. Eta han egonikan bulta bat urean bere ausiki lekua purgatzan, handik partitu eta ene arrebak erraiten dako:

— Txauri etxolara, kafe prisa bat emanen dautzut.

Han bulta bat eleketa egonik, eta hau ahan-ten nuen erraiteko: liburu batean banuen leitua sugeak bat ausikia zuelarik, biziki erremedio huna zela lapatin hostoaren jusa. Erdaraz deitzen da *la feuille de bardane*. Landare horrek ekartzen du kanikaren heineko hazi bat, nun haur denboran herriko bestetan aritzen baiginen neskato gazteen iletara tiratzen. Lotzen dira ezin ekenduzko heinean.

Huna beraz gure gizona nun berriz partitzen den bere astoaren bila. Handik eta bi kilome-

tretan, Ezpel-xilo deitzen den lekuan, han arrapatzen du bere astoa. Joan zen beharbada oren erdi pasa eta hara nun heldu den burua, ezpainak eta oro hantua. Etxolatik partitzean banakon emana zigarreta bat, eta erraiten daut:

— Errak, bainan zer eman dautak zigarreta hura? Harek hauntu nik segurrenik.

Ez zen batere hala. Eskuak ere ez zituzkeen ongi garbituak. Pozoin haren ekentzen arizan eta eskuak ezpainetan erabili zituzkeen. Zernahi den, erran nakon medikura joan behar zuela, bainan ez zen aski kexatu. Biharamunean joan nintzan haren etxolara, ikusteko ene gizona nola zen. Zangoa belaunetik goiti hauntua zuen eta, behar denetz kuraia, berak ezarria zuen orratz batekin dena zilaturik! Zernahi erran nakon ene haurrean, joan behar zuela berehala medikura. Eta badakizue bere etxera joaiteko ere bazuela hiru orenen bidea. Eta horra nun orduan etxe-koek ereman zuten Donibanera, medikura. O!, ez otoan, ez, bainan karrosan. Beti, dena den, dakitana da medikuak artatu zuela. Bainan badakit ere hilabete segurik egon zela elkorturik. Hantik goiti zenbaitek erraiten zautaten: «Gasnategiko medikua». Beti, ausiki hortarik sendatu zen, bainan frango denbora ezuntsa egonik.

HARRI BATI KONTRA BURUA ARRAILDU ETA HIL

Handik zenbait denboraren buruan, Idioineko familiak ere ukan zuen bere zorigaitza. Hemen jadanik aipatua dut hango semea, beti etxolan egoiten zena: Beñat. Mutiko bat zen guziz perestua. Eta egun batez, sabaian ari zelarik zama bat belarren egiten, sabaiko bortaren ondoan, horra nun leatxuneko korda trenkatu eta erortzen den gibel aldera, buruz behera justoki harri baten gainera eta burua han arrailtzen duen!

Hango lagun batzu bildurik, ekarri zuten haga batzuetan herrira eta hirugarren egunean hil izan zen.

Frangotan egoiten nintzan mutiko horrendako arranguran. Ibiltzen zen izigarriko leku lanjerosetan, batean zela ahuntzen ondotik, berzean zela aharien ondotik. Mendi horiek deitzen dira Leuneko Erroitzak edo Poxak, eta balentria zuen, nun eta nola pasatzen zen kondatzea. Nik badakit nun diren, bainan ez naiz behin ere entseatu han pasatzera.

SEI PITTIKA ASTOAREN GAINETIK BEHEREKO ERREKARA

Horra beraz Idioineko bordako ene denborako berriak esplikatua. Borda hortarik goitixago da Altzieta Agerreko borda. Bainan hek ez ziren hor egoiten neguan zenbait hilabete baik, zeren pentze bat zuten bakarrik, hango belar eta soro heien jateko doia. Arraina frango bazen han ere, pentzearen erditik pasatzen zen ur-erreak hartan.

Handik lau ehun metra goraxago da Petri-neko etxola. Etxola haundi bat, bi partetan berezia. Hor bada familia bat hazia. Sei haur baziren hor haziak: hiru mutiko eta hiru neska. Eta segur denak azkarrak.

Horiatarik bi mutiko joan ziren Ameriketara, soldado joan aitzinean. Hirugarrena etxean gelditu zen. Bazuen harek burutik makur puxka bat. Etxola hortan atxikitzen zuten alimaleko ahuntzaldea. Eta hori zuten gidatzailea. Hau omen zen, kasik ahuntzak pasatzen ez ziren lekuetan pasatzen zena. Nik ez dut hori biziki ezagutu. Arreba bat bazuen, izena zuena Mayia. Neskato bat zen izigarri perestua. Artzain batekilan ezkondu zen, bidea luze bezain alferra

zena. Nik aski nuen hau ikustea irriz hasteko. Hain zuen burua bitxia nun nortera behatzeko behar baitzuen hego aldera ezarri! Ez zinakien sekula noiz behatzen zuen zuri. Aldi batez, horra nun irriz hasi nintzan eta erran zautan:

— Bainan, mutikoa, arrunt ergela hiz. Ehuen hor arrazoinik irri egiteko.

Etxean oraino gelditzen ziren ama zaharra eta bi etxeko alaba. Amari denek erraiten zaketen Petrisa Zaharra. Orroitzen niz aldi batez nola Petrisa partitu zen etxolatik, pittika karga batekin astoan. Behi mihise batean bazituen sei pittika, alabaren senar horrek astoan estekatuak. Bainan gaizki estekatuak. Gizon horrek izena zuen Apal. Eta huna nun atso gaizo horrek egiten dituen bi-hiru kilometra. Eta, hain xuxen, gure etxolaren parean badira erroitz batzu, lau ehun metratan, xendratik eta behereko urretara. Eta horra nun hortxe libratzen zazkon estekagailuak eta erortzen pittikak. Hor, lau zango besoak estekatuak, badoazi behereko errekaraino. Eta denak hantxet garbitu ziren. Atso gaizoa desegina gelditu zen. Alabainan, harrentzat makurra zen, zeren talo gaia erosten baitzuten. Alimaleko katixima atxiki zuen bere suhiarendako. Pittika horiek larrutu eta haragia saldu zuten, bainan pentsatzen dut galtzetan.

Bainan hauxe da egin zautan lana gure gizon begi makur, sudur haundi zozoak. Aldi batez erran zautan ene arreba baten senarrak:

— Badakizu, Apalek ukan duela alimaleko kargua Mendibeko elizan? Hautatu dute operari.

Bertze batzuk giltzain erraiten dute. Eta nik ihardetsi nakon:

— Nolaz bada hori?

— Bai, badakizu han aldarea gora dela eta Apalek badu sudur bat aski haundia, argien itzaltzeko!

Biziki pollita hatxeman nuen hori, nun ez baitut sekulan ahantzi.

Hortik zenbait denboraren buruan, ezagutzen nuen bertze etxeko alaba hotarik batek, ize-na zuena Kattalin, horra nun ezkontzea deliberraten duen mendibar gizon batekin, deitzen zutena Tarleman. Ezkonduz geroztik izan zen biga edo hiru aldiz, permisionez. Bainan huna hunen berri txarra ere nun heldu den: Verdun-eko ingura hetan, hark ere galdu baitzuen bere bizia. Haur bat utzi zakon, nexka bat azkarra. Ama ere hala zuen, bainan burutik puxka bat ahula, eta alaba ere hala-halakoa jin zen. Orroitzen niz, hunek balio du kondatzea, nola egun batez partitu nintzen etxolatik jatekoen bila etxera. Eta horra nun ohartzen nizan ene Kattalin

heldu zela gibeletik, astoa egurrez kargaturik. Astotra bat, pago egurra, saltzen zuten hamar libera Lekunberrin. Segur berea zuen, bai, hura lekura ereman orduko. Bainan hara zenbait ogiren saria...

Eta horra nun gure bi astoak aitzinean heldu zirelarik, bat batean egurrak astotik erortzen zazkon. Orduan berean errana nakon:

— Gaixo Kattalin, zuri ere senarra gerlan hil zitzauzun.

Eta egiten daut:

— Ba, ba, gaixoa, Jainkoak bere lorian daukala... To! Hara ene egurrak lurtean!...

Eta airea hasten daut *rai te rai te rai*, dantza jauzien airea.

— Orain, ba, pollita nuk to!

Beti, biek astoa berriz kargatu ginuen eta berriz partitu zen.

Handik beheitixagoño elgarretarik behexi ginen. Hura Lekunberrira eta ni Bazkazanera. Orroitzen niz beti, nola Aita Luro Hazparneko misionest, gaur oraino bizi denaren aita zena etxera heltzean arrapatu nuen alorrean arto jorra ari zela eta nola erran nakon;

— Hola, Piarre, trenpe dia lanak?

Eta errepostua nola eman zautan:

— Ba, lur hau apalsko duk. Hunek behar li-
kek sukaldeko mahainaren heinean. Puskan erre-
xago lukek.

Eta segitu zuen:

— Hi ere beheiti heldu hiz. Harat ere jiten
duk haatik petit-gixon... Ba errakok amari. Ha-
rek baziakik ba zer den.

Galdegin nakon eta erran zautan hitz horrek
gosetea erran nahi zuela.

Biziki maite izaiten nuen zenbait aldiz etxe-
ra jitea, zeren eta ama ere kontent izaiten bai-
tzen ene ikusteaz eta beti zerbait gastatukeria tti-
pi egiten baitzautan. Eguerditan aita lanetik jiten
zelarik, berehala galdegiten zauzkitan kabalen
berriak.

— Eta sator hetarik batere ateratzen
dazkiaka?

Hara, beraz, eguerditan etxean bazkal, gero
astoa karga eta kurri berriz Gasnategira.

PETRINEKO ETA GAZTELUKO ETXOLAKO BERRIAK

Petrineko etxola hortako berri zenbait ere be-
har dut kondatu. Biziki maite nuen etxola hor-

tara joaitea, zeren eta hor baitzen familia bat. Alta ene etxolatik bazen oren erdi baten bidea hurbil. Hor bazen oraino hamabortz urteko nexka bat, ttipiena, Mari izenekoa. Erran baitut bi anea joan zirela Ameriketara, han urte andana bat pasaturik jin ziren. Eta nola desertur baitziren Frantzian, ontasun alde ederrarekin huna nun heldu diren Luzaidera. Hortik beharbada jiten ziren artetan Gasnategira, eta huna nun egun batez aitzen dugun bi aneak ezkontzen direla Luzaiden xarmanteko etxaldetara. Eta zonbait egunen buruan ereman arazi zituzten ama eta bi arrebak, heiekin egoitera. Plazer haundia izan zen bada amarentzat eta bi arrebentzat. Orai zertan den familia hura ez dakit. Aspaldian ez dut heien berririk.

Eta orai goazen Gasnategiko ondar etxolara. Hura da Gazteluko etxola, borda ttipi bat ondoan. Familia hori da Bazkazanekoa. Hor baziren hamabi haurride: zazpi anea eta bortz arreba. Bi zaharrenak gerlara joan ziren. Baño esku bat masakraturik gelditu zen eta bertzea han hil zen. Heien ondotik zen mutiko bat: Jean Noel, bilo gorri bat. Gizon bat azkarra eta izigarriko gustua zuena ardiekin. Etxe hortan baziren berrehun bat ardi. Neguan erosten zituzten bazkak Bazkazanen eta ondoan ardi mendia zuten. Neguan, haunitz aldiz nausi xaharra egoi-

ten zen Gasnategiko etxola hortan. Orroitzen niz aldi bat, han izan nintzan batez, nola arrapatu nuen nausi xaharra taloen erretzen ari zela, paisola bizkarrean. Erran zautan:

— Ba, justu justua itaxura bat badut bizkarrean parrean.

Bainan nik uste bertze bakar batzu ere baziren. Etxola ederraren ukaiteaz baino okupatitago ziren ardi saldoaren ederki ikustez.

Hunen bi seme gazteenek izena zuten: Jean eta Desire. Ikaragarriko pilotariak atera ziren horiek biak. Bat bazen «*champion de France*» izana. Orai hek ere adin puxka batekin dira.

LAUETAN JEIKI, ARDIAK BILDU, DEITZI ETA GASNA EGIN

Huna, beraz, ni orai, adin puxka batekin jarria, hemezortzi urtetara jina. Biziki laketua nintzan bordalde hortan eta ez zitzautan iduritzen hor baizik bizitzen ahal nintzala. Frango lan banuen hor eginik. Sekulako harresi zahar aldea banuen berriturik pentze horietan larrazkenean eta neguan. Gero hasi nintzan udan ardi saldoaren goiti ateratzen, Otaxare izena duen mendi batetara. Hor bazen borda eta etxola bat. Hau

eroria, bainan nihaurek fite arrañatu nuen eta ohantzea plantatu, lauzportz pago landare pikatu eta iratze puxka bat idor arazi, eta huna biharamuneko ene etxola prest.

Banuen orduan ehun bat ardi deizteko. Banuen frango lan pollita. Goizetan jeikitzen nintzan lau orenetan eta bildu, deitzi, gasna egin eta askaldu orduko hamar orenak biltzen nituen. Gero joan behar nuen lehenik ur keta. Iturria biziki urrun nuen. Zortzi ehun metra segurik baziren etxolatik ura zen lekuraino. Behar nituen bi balde. Goizetan untzia ezarri eta arratsalde apaleko betetzen zen. Iturri hori zen bi peñaren artetik tintaka ateratzen zena, bainan urte guzian berdin izaiten zen. Orduan, arratsalde apa-lean untzi bat hartu eta bertzea behar nuen eman, biharamunean berriz ekartzeko. Doi-doia askitzen nintzan ene jatekoaren egiteko, bertzaren garbitzeko eta goizetan buruaren ikuzteko.

XUBEROTAR ARTZAIN BATEKIN HASARRETURIK

Denbora beroa zelarik ardiak egoiten ziren han berean, etxolaren gain aldean, itzalean. Han bazen pago oihan bat, norteko aldetik, biziki freskoa. Aldiz, denbora freskoarekin kurritzen

ziren lepotik eta goiti. Nik orduan lehenbiziko uda nuen eta ohartua nintzan ardiak tarrapatatka beheiti izituak sartzen zirela.

Horra zergatik egun batez, usaian bezala ardiak alatu eta emaiten nizan arbola baten gibelean, ikusteko zer pasatzen zen. Eta huna nun arrapatzen dutan ene etsaia handik urrun, ezen artzain batek igortzen zuen bere zakurra eta hunek ardiak karraskan behereko zolara sartzen. Gauza horrek kolera eman ninduen. Ni oraino arrunt gaztea nintzan, baina ez nezakeen halare egitate hori hala utz, izana gatik ere hura gizon egina. Ba zituen hain segur 60 urte segurik. Xuberotar bat zen, mendibarra. Izena zuen: Kadet. Eta huna nun deliberatzen dutan gizon horri erreprotxuen egitera joaitea. Eta frango gaizki gertatu nintzan, zeren gizon hau baitzen hain xuxen tratuan arizana ardi zahar martxant batekin. Eta han izanki trenpe trenpean, roman berotuak.

Mandoan abiatua zen etxolatik. Xendra txar batean behar zuen pasatu. Ni berriz gelditua nintzan gaineko aldean, esplikazioneen galdegitako, ea zertako ene ardi hek, egun oro, zakurrarekin igortzen zauzkitan. Baina gizona edana izanki eta huna nun mandotik jautsi eta hasten zautan alain mukuzi zikinka, joan nin-

dadin handik nihaun ardiekin nahi nuen lekura. Bere makila eskuan zuen eta huna nun tiratzen dautan ukaldi bat burutik beheiti. Bainan huts egin ninduen. Nik berriz tira ahalako paso bat bota nakon lepo gibelean eta nik ez hutsegin. Ongi arrapatu bai! Eta horra ene Kadet gizona lurrean! Bainan hainbeste izitu nintzan, nun tira ahala lasterka eskapatu bainintzan gainbehera. Eta han urruntxago gelditu nintzan behatzeko. Ene gizona lurrean zen eta izitu nintzan, hil ote nuen... Bainan ez; horra nun xutitzen den, dena madarikazione, eta hasten zautan bere xuberotar lenguaian:

— Ala Jinkua! Haigü, haigü hunat! Beharriak arranatüko daizkiat nik!

Harek ez ninduen arrapatu, bainan ni gero ondoko egunetan egoiten nintzan hura nunbait errekontra beldurrez. Eta horra handik eta hilabete baten buruan nun errekontratzen dutan Lekunberrira heldu aitzinean eta erraiten dautan:

— Lehengoan bezain fier hiza?

Errepostu eman nakon:

— Behar bada, berdin!

Eta humil humila jarri zitzautan erranez:

— Bai, ala Jinkua! Edana nindukan eta otoi barka ezatak.

Eta handik goiti arras adixkide hunak egin ginen. Ixtorio guzia zen, nik uda hartan lehenbiziko uda egiten nuela. Jakin behar duzie artzain guziak berdin direla, lehenbiziko urtea dutelarik. Heien funtsetan sartzen bazina bezala da. Gero ondoko urteko hasten dira maltxotzen...

Horra, beraz, uda bat larrazkenarekin pasatua eta nun berriz biltzen nizan Gasnategira. Udako etxolaren aldean, Gasnategiko etxola enetako kasik *villa* bat zen.

SOLDADO JOAITEKO TENOREA

Huna orai nun hemeretzigarren urtearen pasatzera noan. Haunitz karkula eginik, segitzen dut aitzineko urtean hasi pareta heien berritzen. Biziki laketua nintzan bordalde hortan eta ez zitzautan iduritzen hor baizik nihun bizia egiten ahal zela.

Banuen ere pentze xoko batean, iguzkiari buzur, lur puxka bat barna itzulia, mahasti puxka bat egiteko esperantzan; soldadogoa finiturik jinen nintzalarik egiteko. Huna beraz nun artzen nizan negu guzia eta primadera maiatzaren ondar artio, murru egiten. Ba nuen alimaleko gustua hargintzako. Huna beraz nun pasatzen du-

tan ondar uda, aitzineko uda pasatu nuen leku hartan. Eta horra nun heldu zautan soldado joaiteko galdea: hогоi urte! Aspaldian beha nindagon. Handik goiti urteak fiteago pasatu zauzkit.

Ahatsako erreinta biziki adixkidea nuen. Eskolan ibilia nintzan puxka, harekin ibili nintzan. Harek igortzen zauzkitan liburuak eta *devoir* zenbait egiteko. Eta ikusten bainuen noizetik noizera, aldi batez erran zautan:

— Orai soldado joan beharko duzu fitexko eta nik ukan-araziko dautzut leku bat zuk behar bezalakoa. Sar-araziko zaitut abiazionean, Paueko ondoan.

Deitzen zen Pont-Long. Ez nuen beharbada arras sinesten, bainan hala gertatu zen. Erreint horrek bazituen berarekin eskolan ibiliak, adixkide eta armadako aintzindari zirenak, eta heiekin akortean ukanarazi zautan eni abiazione hortan lekua. Geroxago kondatuko dut nola pasatu dutan hor ene soldado denbora.

Beraz, hara nola heldu zautan soldado joaiteko galdea, azaroaren lauean. Mila bederatzi ehun ta hогоita laua zen. Bainan erran behar dut ez nintzala segurki prisatua soldado joaiteko. Ene ama gaixoa bezperatik ene beha zagon. Arropa bakar batzu ezarriak ba zituen prestatu-rik, gero eguna enekin pasatzeko. Hau ere

erran gabe ez dezaket ba utz. Larru arrasekoa ezarria zautan barne aldetik sakela ttipi bat egirik, han ene sosen ezartzeko. Errekomentazio-neak eman zauzkitan, erranez:

— Sakela hortan atxikiko tuk hire sosak. Hola beti hirekilan izanen dituk. Bestenaz gauaz, hi lo haularik, ebatsiko dauzkie.

Oraiko aldean sosak ba zuen orduan bertze estimu eta balio bat. Sakela hortan ezarri zauzkitan ehun ta hogoi ta hamar libera. Nihauri iduritzen zitzautan aberats nintzala, eta frango aldiz hunkitzen nituen, ea handik faltatu ote ziren bederen.

Biharamunean soldado partitu behar eta arratsaldeko bortz orenak airean oraino etxera heltzekoa nintzan. Lauak airean, pasatzean izan nintzan erreintari adioren erraiten eta erremesiatzen egin zautan fagoreaz. Eta hantxe berandu nuen harekin edaten. Hark ere arno huna maitte. Nik ere bai eta harek izanki arno hunetik. Huna beraz arribatia etxera. Gauda pasatu eta biharamunean partitzeko tenorea jina. Ama ikusten nuen beti ta tristexagoño. Aneak berriz huna nun karrosa ateratzen duen eta behorra atelatzten Donibaneko garara joaiteko. Aitari eta amari pottak emanik partitzen niz beraz etxetik. Aitak ama triste ikustearekin erran zakon:

— Ba, eztugu, ez, triste izaiteko arrazoinik. Ez dioazu, ez, gerlarat.

Alabainan amak seme bat eta anea, ene oseba, han hilak izanak zituen eta bertzea gazaturik oraino ez ongi sendatua.

Arribatzen gira, beraz, aneak karrosa gidaturik, Donibaneko garara. Anea berriz bide guzian arizan zitzautan kontseilu emaiten eta ni baino argituago baitzen haunitz gauzetan, harek erranak ontsa sartu zitzauzkitan buruan eta segur hun egin haren kontseiluek.

ESKUAL-HERRITIK URRUNTZEN ETA KASKOIN HERRIAN SARTZEN

Huna Donibaneko garan nun arrapatzen ditudan bi lagun Pauera soldado doazanak. Baño ene eskolako laguna: Martirene Dominik; eta bertzea lasarra, Xuxurru deitzen zena eta orai-ko mementoan mundu hau utzia duena. Elgarrekin hartzen dugu Baionarateko treina, segur alegeraki, bide guzian kantuz. Nik uste hiruen artean ba ginuen hiru egunen jatekoa segurik, dela oilasko, xingar, moleta eta hola. Ba gintuen ere hiruek xahakoak. Nik ba nuen, aneak emana, lau pintako xahako bat etxeko arnotik be-

tea. Frango jendek irri egiten zautaten, halako zahako izigarri batetik airean xurruxta ttipi bat ahora xuxen johan ikustean, ezpainik eta sudurrik hunkitu gabe...

Baionan treinez kanbiatu ginelarik ohartu ginen Eskual-Heritik hasi ginela urruntzen eta kaskoin erresumari hurbiltzen. Ene lagunak gelditzen ziren Paueko garan, bainan nik joan behar nuen hamar bat kilometra urrunago. Gara-ra esperantxa nuen adixkide bat, Altzietarra, J. B. Curutchague, jadanik soldado zena sei hilabete hartan. Huna beraz nun arribatzen giren Paueko garara. Treinatik jautsi eta gelditu ziren gure kantu eta irriak. Han zauden gure beha bortz edo sei *sous-officiers sardiantes* eta *axurante*. Bai eta ene laguna ere. Bainan nik ez nuen heieri segitzerik, zeren ene erreximendua bereza baitzen hetarik. Hek ziren Paueko kaserna handi hartarateko eta ni abiazioneko. Ene lagunak ezarri zituzten lerroan. Orotara bildu ziren hogoi bat, eta martxa, *sous-officiers* horien artean. Gu han gelditzen gira, ni eta ene lagun hura, soldado arropan, zakur handi bat kordatik. Hura bere nausi *officier*-arena zuen.

Berehala erran zautan:

— Segurki xantza duk ene erreximendu hontan izaitea. Bainan gaixoak horiek beharko die,

hitzemaiten deat, bizitzen ikasi. Izigarriko erreximendu bortitza duk horiena. Alde batetik badduk kasik soldado bezanbat aitzindari. Sei hilabete klasa badie eta egun guziz haste. Aldiz hik ez dituk erdiak eginen.

LEHEN GAUA LIEUTENANT-AREN GANBARAN

Hara. Hor laguner so egonik ixtanpat, partitzen gira eta ostatu batean sartzen. Hasten gira ene jateko hetarik berriz jaten. Lagunak egin zuen ala-alde bat xarmanta eta erran zautan:

— Orai arratsean ezarriko hut ganbara bat ederrean. Ene nausia joana duk bi egunendako.

Norapait, bixtan da. Ez zakin norat. Nik ere ez... Zen lieutenanta eta mutiko gaztea. Ondoko egunetan gauzak klarxeago ikusi nituelarik, egon nintzan zer irriskutan ibili nintzan!

Huna beraz elgarrekin hainbertze denbora ostatu hartan pasatu eta, nun eremaiten nuen bere nagusiaren ganbarara. Izigarriko euriak ari ziren. Parasola ba nuen, bainan zangoak trenpan, eta haren ganbara dirdiran zen. Hor ganbaran sartu eta erakusten daut ohea, bainan bertze gainerateko behartzen ahal nintzanetaz, deusik ez. Argia itzali eta hortxe partitzen da.



Bainan hara handik bulta baten buruan behar-
tzen nizan —nola erran behar da?— ur xuria-
ren egitera. Bainan nun da lehenik argia? Hura
ezin arrapa, haztaka haztaka arrapatzen dut lei-
hoa. Bainan hau ezin idek. Hatzemaiten dut gan-
barako borta. Bainan hau ere gako. Eta orduan
zer egin? Nehun deskargarik ez ikusten eta on-
darrean, aski behartzearekin, zapatak nun utziak
nituen bainakien, gogora jin zitzautan gauza bat
egitea, ahal zena bazen ere. Ene bi zapetak har-
tu nituen untzitako eta hetara hustu soberaki-
na, pentsaketak eginik gero ere biharamunean
arrapatuko nuela heien husteko lekua.

Huna gaua pasatua. Eta horra nun heldu
zautan berriz bere zakurrarekin eta egiten
dautan:

— Eta? Egin duka lo?

— Bai, bai...

Eta galdegin gogo nakon ene untziarendako
hartuak nituenak, ea nun... Bainan aitzindu nin-
duen, erranez:

— To, mutikoa! Hire zapeta horiek, barda
hanbateko urak bazizketean, ganbara guzia busti
diaie. Berehala ereman gogo hintudan hire erre-
ximendura, bainan berantxogoño joan beharko
diagu, zeren eta ganbara hau beharko diat an-

koztikatu. Ba, ene falta ere ba duk ba. Ezarri ba nitu hemen kuloir-eko aldetik, ez zian hola bustiko.

Eta errepostua eman nakon:

— Bai, bai, egia duk. Eni ere ez zaitak gogoratu.

Dударик gabe, zapeta hek ere ez ziren, ez, arras berriak, dena hala galtzera uzteko...

Dena den, afera holaxe pasatu zen. Gaizo mutikoa, hanbateko torra aldiak eman behar izan zazkon ganbara zolari, lehen bezala ezartzeko. Nihaurek ere lagundu nuen trapu batzuekila frotatzen. Oraino ederra hola ere pasatu baitzen. Geroztik egoiten naiz bakotxetan orroiturik gertatzen ahal zela makurra haundiagoa. Ofizier hori zen gaztea eta gertatzen ahal zen andere zenbaitekin gauaren pasatzera jitea, eta hor orduan ni haren ohean ikusita, zertan ginen orduan haren ordonantza eta ni? Beharrik ez zen holakorik gertatu!...

Biharamuna igandea zen eta joaiten gira biak oinez abiazionera. Egin ginuen biek zortzi-hamar bat kilometra eta harat arribatu eta, — nik uste zela kaserna bat Pauen bezalakoa, tau-lazko barraka batzuekin— arrapatu nituen hogoi bat gizon ganbara bakotxean eta bulego guziak hetsiak astelehen artio.

URTE BAT SOLDADOGOA EGIN ETA ETXERA

Hor hasi ginen gero bulegora hurbiltzen eta gero ezarri gintuzten batzu ganbara batzutan. Ganbara guzietan ba ginituen guharen kaporalak. Ni gertatu nintzan izigarriko kaporalanarekin, Baionako Landrieu denek ezagutzen duten etxekoa. Terrible maitatu ginuen elgar. Izigarriko gizon seriosa zen. Hunen zenbait berri kondatuko dut geroxeago.

Huna berriz hemengo bizi moduari usatu beharko. Janaren partetik ez dut behin ere biziki sofritu, zeren usatua bainintzan ukanarekin kontentatzen eta jateko guziak untsa hartzen.

Lehenbiziko egunetan ar-arazi ginituzten jimmaztika eta martxa eta holako egiten. Gero, lehenbiziko hiru hilabeteak pasatuz geroztik, ez ginakien zer egin. Eta nik bainakien puxka bat klerona joiten. Gasnategin ikasia nuen. Orduan igorri ninduten untsa ikastera Pauera. Han ikusi nuen orduan hango soldadogoa zer zen, gu-rearekin konparaturik. Salbu nik ez nuen hekilan deus ikustekorik. Eta huna, bi hilabeteren ondoan, nun igorri ninduten berriz abiazionera. Ikasi nuen aski hemengo. Eta geroztik beti segitu dut klerona. Besta berriz lehenik Ahatsan,

sortzez ahastarra bainintzan, eta ere klika batzutan. Geroxeago kondatuko dut zerbait.

Ni soldado joan nintzalarik, zerbitzua zen urte bat eta erdi. Eta han nintzan denboran pasatu zen legea, baldin bazen soldadorik anea zenbaitek gerla egina zuenik, hetarik lehenbiziko anea eskapatzen ahal zela urte bat egin eta. Eta justua ni hala izanki. Beraz urte bat egin eta libratu nintzan. Ez bainintzan batere samur! Alta, erran behar dut ene denboran pasatu dutan denborarik ederrena soldadogoan pasatua dutala. Bainan halare etxera noiz itzuliko beha egoiten ginen. Hasi nintzan ere orroitzen, hongoi urte pasatuz geroztik behar zela hasi pentsatzen zerbait egin behar zela biziari buruz; zertara duen gizonak gostua eta hari behar dela pentsatu eta istudiatu; ikusi ere bertzeek zer egin duten eta balio duen; hautatu lana aski maite izanen den, zeren behar baita lana maitatu, eta lan horri untsa lotzeko behar da lana untsa ikasi.

LEHEN HARGIN LANA: ETXEKO ARDITEGIA

Nik banuen aspaldi ofizio bat maite nuena. Banakien hala hala lan bortitza zela eta ez hain garbia. Orduan zer egin nuen? Soldadogotik jin

eta egon nintzan, hurbil urte bat, etxean. Ba zen gure etxean lana frango egin behar zirenak, hala nola leihorrik ez zen, bizitegiak kanpo, deusik. Gure etxean ba ziren hirurogoi bat ardi, dotzena bat behi. Neguan izigarriko miseria zen azinda horiek ezin kokatuz. Nik ikusten nuen ardi horiek eta behi horiek denak elgarrekin ez zirela nihundik ere untsa joaiten ahal. Aitak berriz beti eza, leihor baten egiteko. Bainan ondarrean hartu nuen deliberoa, amarekin akortean, ardi-tegi bat egiteko etxeari kontra. Hola hasi nintzan harri biltzen eta zenbait denboraren buruan, iduritu zitzaularik askitsu harri ba nuela, hasten naiz zimenduen ateratzen. Eta nor nuen laguntzailea? Arreba bat, gizonaren parekoa, Clemence. Gerla denbora guzian ere hura zen aitaren laguntzailea.

Horra beraz nun hasten nizan murruean altxatzen. Morteroa zer nuen? Buztina. Harria, al-diz, gisuharria. Arras harri huna.

Bainan maite nuen hargintza eta horra nun, hogoi bat egunen buruan, altxatuak nituen murrak, ezartzen ditut gainetik taulaz tapaturik eta joaiten niz oihanera. Bi haritzondo mozten ditut eta solidoak egin-arazten, bai eta leiho eta ate kolonak. Eta ekar-arazten dut zurgina eta bi orga teila.

Handik fite, huna ene arditegia altxatua, bere hamabortz metra luze eta lau pasa zabalekin. Gure ardi saldoarendako ba zen ausarki. Hori ikusi nuelarik, arras untsa egina, hartu nuen deliberoa hargintzaren ikastera joaiteko.

BAIONAN APRENDIZ

Bainan ikusten nituen Baionako eta ingurina horietan hargin lanak biziki polliki eginak, bertze haunitz herritako aldean lanak biziki polliki finituak, eta bertzalde lana frango zimentaz eginak. Eta puxka bat ateratu nintzalarik, konprenditu nuen ez zela Gasnategiko ene lehenbiziko ideia huna, bizi baten egiteko eta familia bati buruz lotzeko aski.

Hor arrunt deliberaturik joan nintzan Baionara leku baten arrapatzera hargintzan ikasteko. Norbaitek hatzeman zautan nagusi bat eta harek errana zakon xarmanki banakiela lanean. Bainan solas hori ez baitzen arras egia. Baionan hargin onek irabazten zuten hogoita hamar libera. Hor ar-arazi ninduten hamar bat egun. Pentsioea ostatu batean hartzen nuen. Hamar libera pagatu behar nuen bazkaria eta afaria. Ba segur ukanak aise jaten nituen. Ez zen segur soberakinik xakurrentzat gelditzen. Eta ganbara oraino bertzalde. Adixkide batek emaiten zautan presentean.

Eta horra nun hamar bat egunen buruan ukaiten dutan galdea agertzeko nagusiaren bulegora. Eta nagusiak erraiten daut:

— Langilea omen zira, bainan hargintzan oraino guti omen dakizu. Eta nik ez dauzut egunean hamar libera baizik emaiten ahal.

Peoin baten jornala zen. Hor lanetan nintzan. Zer egin behar nuen? Ez nuen bizkitartean berriz etxera joan nahi.

SANT-IZPIRITUKO KORALEAN KANTARI

Orduan nihaurek galdegiten diot *entrepreneur* bati hargin aprendiz baten lekua. Han arras nagusi onarekin gertatu nintzan. Enekilan zabilan hargina hargin zahar bat zen. Bainan ez zen behar nuen lekua. Hauk ez zuten etxe berriarik egiten, erreparazioneak baizik, eta hor hilabete bat pasatu nuen.

Gero horra nun egun batez arrapatzen dutan pentsioneko leku bat ganbararekin. Bixtanda ez nituen jende hok ezagutzen, bainan zenbait hilabetez ezagutu nituen untsa.

Hor bizi ziren kuple gazte bat, haur batekin, Maubec deitu karrikan, laugarren estaian. Beharrik hatsa aiseago hartzen nuen, orai lerro hok ixkiriartzen ditudan memento huntan baino.

Etxeko anderea zen hogoita hiru-lau urte zitu-
tuen emazteki bat biziki ederra, bainan sobera
amorosa. Hor pasatzen ditut hiru hilabete. Ja-
tekoa zen arras txarra eta xuhur. Eta nik berriz
apetitua zorrotz! Etxera jiten nintzan zenbait al-
diz aitaren eta amaren eta haurriden ikustera.
Eta aldi hartan amak erran zautan:

— Bainan hi gaizoa, arrunt flakutzen ari
haiz. Ehiza ba asetzen? Hala zen. Frango aldiz
nihaurek erosten nuen jateko puxka bat.

Emazteki haren senarra Biarritzen artzen zen
limonada fabrika batean lanean. Gizon ttipi kox-
korra bat zen eta dena jeloskorra, nahiz ba zuen
arrazoina ere. Segurrenik ezagutzen zukeen bere
emaztea. Bainan desgustatu ninduen ondarrera,
zeren sobera aitzinatzen baitzen eni gustatzen ez
zitzauzkitan gauza batzuitan.

Ba zen etxe hartan berean, laugarren estaian,
emazteki xahar bat noiz nahi jiten zena gure su-
kalde hartara. Hura zen emazteki bat izigarri de-
bota, bere bi ilobarekin bizi zena. Huna nun
egun batez nola denak kanbiatzen diren ene al-
dera. Alabainan egunean zortzi oren egin eta li-
bro ginen xantierretik. Hori nik izigarri arrapa-
tzen nuen, zerengure etxean ez baitzen goizean
lana has eta ilundu ondo artio lana finitzen. Be-
raz horra nun arratsalde batez, lanetik sartu eta,

ari nintzan xurrutan eskuen garbitzen, eta kantuz denbora berean. Emazteki xahar hori heldu zaut ondora eta erraiten daut:

— Hori zer boz xarmanta duzun. Zuk behar zinuke Sant-Izpirituko koralean sartu. Ba dira bi bikario terrible gixakoak. Segur plazer egin zinezeeke kantu hortan sartuz. Ba dira jadanik hemezortzi.

Eta horra nun errepostu emaiten dakotan:

— Bai, gogotik. Nik beti maite izan ditut apezak, eta gainera gehiago oraino kantua.

Huna beraz biak biziki akort. Aipatzen dako lehenik bikarioari. Hau arras kontent zen. Ihardesten dako joan nindadin larunbata arratsaldean zortziak airean. Joaiten nitzako. Ezartzen nu bere ondoan eta kantarazten daut lehenik eskuaraz. Eta erran zautan kantari guzietan baño zuela tenora eta ni harekin xarmanki aurrinduko nintzala.

Handik loriaturik ateratu nintzan. Eta erran behar dut ene bizi guziko ona hortik partitu zela. Gertakari horiek denak ixtorioa kondatuz bezala xeheki kondatuko ditut. Ba zen hor ere klika. Hogoita hamar bat ba ginen orotara. Ba ziren gazte gazteak eta adin puxka bat zutenak.

NAUSI BAT PERFETA

Handik laster, huna nun galdegiten dauzkitan ene berriak.

Xarmanki baliatu nintzan ene arranguren erraiteko. Erraiten dakot nola ez nintzan ene laneko tokiaz satisfos, ez zelakotz obra berririk egingen. Ez eta, bertzalde, pentsioneko lekuaz, ez janaz, ez eta etxekandre sobera amoros hartaz.

Ixil ixila egon zen ixtant bat eta handik zortzi egunen buruan huna nun erraiten dautan, nik nahi nituen gibelondoak egin zituela. Laneko lekua arrapatu zautan, nagusi bat perfeta, langileak oro kasik eskualdunak; *contremaître* edo nagusi-ondokoa beskoiztarra, hautuko gizona, larderiarekilakoa, bainan zuzena. Alimaleko hargin gazte andana ba zuen eta denak bere herri-tarrak, berak ekar-araziak. Harekin ere ixtanteko adixkidetu nintzan.

Lanean ere harek erakutsi zautan. Bi urteren buruan hango hargin zaharrekin plantatzen nintzan lanean. Hemen berehala jornalak altxatu zauzkitan. Sartu eta berehala eman zautan hogoita bi libera, eta ondarrera irabazten nuen hogoita hamar libera. Aspaldian han ari ziren har-

gin xaharrenek hogoita hamairu libera zuten irabazten.

Eta ene pentsione lekuaz ez dut erran, bainan bi apez horiek hartu ninduten ber horiek pentsionea zuten etxe berean; hek jateko sala ttipi batean, guk borta arte sukaldean. Zer plazerria nuen hola izaitez! Bikario horietarik batek izena zuen Lamy. Hau eskola libroen direktura. Bertzea berriz *l'abbé* Mignou, Bokalen ertor egona eta gero luzaz Oloron-eko *archiprêtre*, orai gaurko egunean oraino Baionako katedralean kalonje dena. Frango aldiz egin izan dut otoitz apez horientzat. Baiona arras maitatu nuen eta apez horiek berek galdegin zautaten aldebat ere han gelditzeko. Bainan ni ez bainintzan hango beharra, bi urte eta erdiren buruan deliberatu nuen Ahatsara jitea. Hor arizan nintzan urte batez lanean.

LEHEN HAMABORTZ EGUNAK ALDUDEN

Eta huna nun, astelehen batez, arrapatzen dutan ene eskolako lagun bat, ni baino zenbait urte xaharragoa zena eta jandarma Alduden zagona. Joaiten gira pinta erdi bat arnoren edate-
ra eta han bulta bat elgarrekin egonik, erraiten

daut:

— Nun ari haiz lanean?

— To, mementoan Azkaraten.

Hantxe zenbait egun arizanik etxe xahar baten arrañatzen, pasatu nituen sei edo zazpi hilabete. Beti ere harek erraiten daut:

— Jin behar huke atsulutuki hango hargin baten laguntzera. Zernahi lan badik gizon gaitzoz harek eta bera ez duk kapable lan heien egiteko. Alde batetik zahartua duk eta bertzaldeetik hasmatikoa.

Alta ez nintzan batere bero harat joaiteko. Gainera ez nintzan sekulan izana herri hortan, zelarik izigarriko leku pollita Bazkazane eta Gasnategiren aldean.

Anaia zaharrenak erran zautan:

— Hail, mutikoa. Zerbitzu eginen duk eta denbora berean zenbait sos gehiago irabaziko duk. Gero ere fite hiz gibelera itzulia.

Horra nola deliberatzen dutan astelehen batez joaitea, Aldudeko otobuz batean. Bidea frango luze hatzeman nuen lehenbiziko aldian. Alta gero pasatu behar izan dut zenbait mila aldiz. Otobuzeko xofurrari erran nakon ahal bazuen jandarmeriako aintzinean geldi zadin. Huna beraz Aldudera heldua. Zubi batean jautsi eta han berean nuen jandarmeria, hotela, eliza, apeztegia eta plaza bat xarmanta. Segurki plaza har-

tan eta haren ingurian ba dut zenbait mila libe-
rako irabazirik.

Huna beraz nun presentatzen nizan jandar-
merian eta ateratzen zautan ene eskolako lagun
jandarma. Erraiten daut:

— Haugi. Behar duk lehenik afaldu eta gero
bi bizikletetan joanen gaituk.

Berehala obeditzen dut. Haren emazteak be-
rehala prestatzen du afaria. Ni Baionan nintza-
larik ezagutua nuen emazte hori. Tanta batekin
artzen zen lanean. Harek zuen botiga ttipi bat,
bainan hainitz gauza saltzen zuen. Hain zen ha-
ren tanta hura jendekin filusa. Huna beraz afal-
dua eta eleketa aldia egina. Partitzen gira bede-
ra bizikletetan, nik ari behar nuen hargin haren
ikustera. Hau loriatua zagon eta galdegin nin-
duen hamabortz egunendako.

Beraz hamabortz egunen buruan pagatu nin-
duen. Nik sekulan pentsatuko nuen baino jor-
nal haundiagoa eman zidan: berrogoita bortz li-
bera! «Hau ahatik berri huna diagu» egin nuen
ene baitan. Eta galdegin zautan ez nintzanetz
bertze hamabortz egunendako joanen. Ikusiko
nuela. Ikusiko nuela, bainan segurrenik baietz
ihardetsi nakon. Joan nintzan etxera. Eta aste-
lehen arratsaldean berriz otobuzean itzuli.

Pentsioea hartzen nuen hango ostatu ttipi batean, deitzen zena eta dena orai ere oraino: Bettinea. Nagusia gizon eskasa baldin bazen, etxeke anderea, Mariana, emazteki bat zen paregabea. Segurki mundu huntarik zenbait tripa aserik joana da eta gure Jainkoak berekin daukala bere lorian. Lana frango eginik joana da, bainan ez halere aberasturik.

Xarmanki emaiten zuten jatera eta edatera. Nik han nuen pentsioea eta pagatzen nuen ganbarekin eguneko hamabi libera eta erdi.

HOGOITA LAU URTETAN ENEGAIN ALDUDEN

Horra beraz bertze hamabortz egunak pasatuak eta huna zer proposatzen dautan hargin zaharrak. Erran zautan:

— Zu orai gizon gaztea, lanean dakizuna eta iduriz segurik azkarra, hogoita lau urte... zuk behar zinuke hunat aldeat jin. Izigarriko leku huna duzu hau sos egiteko. Herri huntan hogoietarik hemeretzi Ameriketara joaiten dira eta gehienak jiten dira sos politarekin, eta denek egiten dituzte lanak etxen arrañatzeko. Eta eder zee erakustea sosa badutela. Ez dute kondiendako kasurik egiten.

Nihaur ere hasia nintzan gauza horri puxka bat ohartzen eta horra proposamendu horrek nun izpiritua trabailarazi zautan. Erran dena, bertze hamabortzean kondatu nuen ene etxean aitari eta amari, eta errepostua eman zautaten:

— Gaizoa, hori hiaurek behar duk ikusi. Gero ere badakik etxea nun den.

Horra beraz frango deliberatua. Ikusi nuen ere han ba zela depota baten muntatzeko xantza. Eta horra nun handik laster arrañatzen dutan etxe xahar bat eta han metatzen gisu, zimenta, brika eta teila. Xuritzeko gisua Lurdetik ekar-arazten nuen, hamar mila kilo aldian. Vagon baten bete.

Zernahi gisu xuritzeko enpleatzen zen Alduden eta Urepelen denbora hartan. Zoinek etxea xuriago artzen ziren. Nik uste ba zen han emazteki bat, hola zerbait saltzen zuena. Emazte gaixo harek faillita egin zuen. Bainan ez haatik ni nintzala kausa. Eta egun batez denak atera zituen saltzeko. Hauzoko gizon batek erosi zituen denak.

ESNAUSUKO ELIZA EMOKATZEKO GALDEA

Huna beraz: ene hargin nagusi hori arras eritu zen eta handik zenbait hilabeteren buruan par-

titu zen bertze mundura, utzirik emaztea eta dotzena bat urteko semea. Lana heldu zitzautan beti eta gehiago, eta nik denak egin nahi.

Bainan hortako behar nituen langileak ezarri eta aloiatu.

Hortako behar nuen ere etxea doi bat haundia. Eta hola lanean artzeko behar nuen ezkondu. Eta horiek oro ez ziren gauetik biharrera egiten ahal. Behar ziren ere kondiak egin eta horrek berak ba zuen lan gotorra eta behar zen jakitatea. Eta nik pentsatua nuen liferentzia horren hatxemaiteko ba zela posibilitatea. Hartako behar nuen emeki egon eta jendea ezagutu, eta hunek ere ni ezagutu.

Gure Jainkoak beti lagundu nu. Alduden ba da kartier bat deitzen dena Esnausu. Hor ere ba da eliza bat pollita, eta hitzemaiten dautzuet esnausuarrek ongi kasu egiten dakotela elizaño horri. Eta huna nun egun batez ukaiten dutan Esnausutik galdea eliza hura behar nuela dena emokatu edo zartatu. Lan alde ederra ba zen hor ere, eta aldamu egiten lan haundia. Lan horien buru zen Aldudeko meraren arreba bat, denek untsa ezagutzen zutena. Alde batetik ba zuen eskola, eta haunitz erabiltzen zen erien ikusten eta artatzen ere. Izigarri zerbitxu-egina zen eta maitatua.

Andere Chabagno deitzen zen. Hori nuen kasu egile eta lanen manatzaile. Bertzaldetik berri biziki biotz huna zuen.

Baitzakien pentsioea ostatuan nuela, orduan frango aldiz ereman-arazten ninduen bere etxera bazkariz edo afariz. Hor arizan nintzan bi hilabetez segurik lanean.

Ba zituen etxean mutila, neskatua, bi iloba, bere ahizpa baten haurrak, eta horien eskolatzeko ba zuen ere erreintsa gazte biziki nexka mannerakoa eta debota.

Arratsalde oro jiten ziren elizara otoitzera. Erreintsa hori zen ere igandetan pianoa joiten zuena.

EMAZTE GAIAREN BILA ESNAUSUN

Horra beraz nola zenbait egunen buruan egiten ditudan ene pentsamenduak. Ba nakien hola, ostatuan pentsioea hartuz, ez nintzala luzaz egoiten ahal. Sobera gastu heldu zitzautan eta ezagutu nuen hobe nuela ezkontzea, eta hortako behar nuela emazte bat eskola puxka bat zuena, ene kontabilitatearen egiteko.

Horra nola, erreintsa bere haurrekin elizatik ateratzean, eleketako okasioea ezartzen dutan, erreintsano horri ele emaiteko. Horrela kon-

datu nazkon ene berriak, etxekoez, Baionako klikaz eta partikulazki hor bi urtez parte hartu nuen koralaz. Ba nakien horrek interesatuko zuela denbora puxka batez eleketa atxikitzeko. Ez zuen, ez, harek pentsatzen nik zer nuen gogoan. Ez nakon, ez, ere lehen aldian konprendiarazi, bainan emeki emeki ezagutuz bezala, hasi zen zerbaiten konprenditzen eta interesatzen. Bai eta etxeko anderea ere, ezagutu baitzuen segurenik afera hori martxarazteko gizon nintzela.

Zer uroostasuna elgarri baiak eman ginitue- larik! Handik goiti meza Esnausun aditzen nuen. Aise, Esnausun, bada, kantuak ala harmoni- ma joilea ederrago ziren! Horrela joan zen urte bat eta erdi, bainan gizon hunek hartu zuen ku- raia eta indarra gogoan enegain hartuak nintuen lanen egiteko.

Berehala ezarri nuen emazte-gaia ene kon- du eta paperen segitzeko. Orduan hasi nintzen, artea nuen aldi guziz, harri biltzen, sable biltzen. Alta ez nuen bada oraino lurrik erosirik. Bai- nan hautatua nuen lekua nun segur bainintzan salduko zautatela. Behar nuen atsulutuki etxea egin, eta erraiten ahal dut, gizonak kaskoan ongi hartua baldin badu zerbait, hartara heltzen dela, bederen lanaren gostuz. Eta erraiten ahal dut ere ez ninduela lanak izitzen, ene aprendizgoak egi-

nak bainintuen eta urte bat eta erdiz bainuen ere sos puxka bat eginik eta bazterrera emanik. Beti erraiten zautaten bai aitak bai amak:

— Sosa ahal baduk emak bazterrera, zeren ukanen baituk beharra gaur ez bada bihar.

Egia haundiagorik ezin erran. Lehenbiziko aldikotz ezarri nituen bi mila libera bazterrera, bainan jin zen segur enplegua.

ENE LEHEN ETXE BERRIAK ALDUDEN

Buruilaren hogoita hiruan joan nintzan Aldudera, mila bederatzi ehun eta hogoita zortzigarren urtean. Hor egin nuen lehenbiziko lana, egin nuen etxe bat ederra, modela berria: Ahuzkiko etxe berria. Aita xaharrak egina zeijen bere hiru alaba mutxurdineri eta seme Mixel-i. Haren ondotik egin nuen bikarioen etxea eta gero joan nintzan Esnausuko elizaren emokatzera. Eta artetik egin nituen ere herriko lanak, frango interesantak.

Huna beraz nun arribatu zen ezkontzeko eguna eta gure etxe berria oraino gibela, bainan beti kuraia haundia. Etxea egiteko artean ezkondu eta behar zen egoiteko tokia, eta Alduden ez zaiken etxe bat arrapa arrañatzeko. Bainan beti

jende on norbait ateratzen da. Ene emaztegaia-
ren ahizpa batek eman zautan hasteko bere etxe-
an, etxe haundia zuen, ganbara bat eta sukalde
bat. Handik zenbait urteren buruan bertze ahiz-
pa batek, bere etxea haundiagokoa baitzuen,
eman zauzkitan hiru ganbara eta jateko sala.
Hara, orduan, ekartzen nituen etxera langileak
janaz eta etzanaz. Emaztearendako hor ezarri
nuen lana.

Handik bi urteren buruan hasten naiz etxea-
ren egiten. Lurra erosi nuen komunetik. Biziki
leku pollitean. Ez arrunt karrikan, bainan hur-
bil. Zernahi gosta zitzautan lekuaren prestatzea,
zeren mendi paretari kontra zen eta dena lega-
rra. Legar larria. Haunitz aldiz, metra karratu
bat lekuren zelaitzeko, obliatua nintzan kamion-
tra baten lekutzerara, zeran legar hura heldu zen
beti burrustan eta hartako zimendurik ezin has.
Hortakotz haunitz gosta zitzautan lekuaren plan-
tatzea. Ez nuen segur erosmena biziki pagatua:
berrogoi sos metra karrea, bainan planatzea zer-
nahi gosta zitzautan. Gero haatik, hasi nituela-
rik zimenduak, fite marxarazi nuen. Murruak
lau astez ezarri nituen teilatuarekin eta handik
sei hilabeteren buruan barnean sartuak ginen.

Ordukotz ba ginituen bi haur: bi nexka.
Orroitzen niz zer plazera ukan ginuen han gure

etxean sarturik lehenbiziko aldiko. Eta gero, denbora joan, denbora jin, beti puxka puxka arizana niz etxearen haunditzen eta edertzen. Azkenekotz banituen bortz ganbara eta bi sukalde. Hara nola ondarrean luatzen gintuen bi ganbara eta sukalde bat. Etxe aintzinean ba ginuen terraza haundi bat, estranjerrek biziki estimatzen zutena. Hantxe egoiten ziren zabal zabal etzanik. Haietaz egoiten nintzan zenbait aldiz jelos. Eta eni ez iduritzen nik sekulan pasatzen ahalko nuela hola zenbait egun...

LEHEN EZKER PARETA: MONLONG-ENA

Alduden ez zen haunitz etxe berri egiten, baina haunitz erreparazione. Obra berriak erran behar dut zoin diren nik eginak. Alduden Iturrietako etxe berria, nun ere izigarriko orroitzapen huna atxiki baitut hango jendeendako. Etxe hortan egiten ziren Aldudeko gasnarik hoberenak.

Bertzalde, ni horrat joan nintzalarik, ez zen ez erraboterik, ez eta trinketik. Eta gazteriak haunitz desiratzen zuen errabote bat. Luzaz artzen ziren pilotan jandarmeriako etxe paretari kontra, baina murrak ez zuen ongi errespon-

ditzen, zeren pareta hortan baitziren leihoak. Beti ari ziren jaun merari galdeka errabote bat eginarazi beharrez. Bainan mera ere lotsa zen. Karga haundiak heldu baitziren herriarentzat. Ba ziren segurki pilotariak gaztetan. Eta huna nun, egun batez, aditzen dugun hango gizon batek egin gogo zuela ezker pareta estali bat. Deitzen zen Monlong. Harendako biziki ontsa heldu zen, zeren baitzuen negozio puxka bat. Haunitz okupatzen zen mutiko gazte horietaz Ameriketara igortzeko. Ba zituen zenbait aldiz hamar bat mutiko eta denak batean igortzen zituen Ameriketara. Bera joaiten zen heien laguntzera untziraino. Bazuen ere etxean magasina, eta emazte bat partikularra huna.

Horra beraz nola egun batez erraiten dautan behar zuela pilota plaza bat egin eta lana eni emaiteko nahikaria zuela. Haatik lana nik merkeena eginez. Ez ginen segurki berehalakoan arrañatu. Bainan ez zen aisa harentzat bertze bati emaita, zeren guk ere haren etxean haunitz puska erosten baiginuen.

Eta horra noizpait, aski kalapita erabili ginuelarik, nun hartzen dakotan egitera. Ukaiten nituen denbora hartan langile hunak, bada peoi-nak, bada harginak. Batean Izpuratik, bertzean

Ortzaizetik. Gizon trenpekoak eta lanean ongi ba zakitenak. Haunitz arizan dira bi hargin hekenetako lanean. Biak ene adintsukoak ziren. Eta orai biak joanak bertze mundura.

Fronton hori egin ginuen ezker pareta estaliarekin. Izigarriko errekesta ukan zuen. Egun guziz ba ziren hor pilotariak. Haatik pagatuz hunenbertze oreneko. Bestakari ere egiten ziren xar-manteko pilota partidak. Pilotaleku hori egin nuen mila bederatzi ehun eta hogoita hamalauetan. Gero hor segidan eginarazi zautan garaja haundi bat. Izigarri lantzatu zen gizon hori otobusekin. Bainan ba zuen kontrario bat, sekulan barkatu ez dakona eta oraino ere, 78-an, ari dena konkurrentzian.

Pilotaleku hori egina izan zen 1934-ean, erran dutan bezala. Alduden ertor bat ginuen orduan deitzen zena Haxket. Urepeleko semea, Tipitoinekoa. Hau xahartua zen eta gaitzeko adixkidea Monlong horrekin. Eta horra nun egun batez jartzen den eri arras gaizki eta frango fite mundu hau uzten duen. Haren ondotik erretortzat izendatua izan zen Lazkanotegi, sortzez Urruñarra. Izigarri apez deliberatua. Hori jin zen Aldudera 1938-an eta lotu zen izigarriko laneri.

ESKOLA LIBROA BORDA ZAHAR BATEAN

Lehen lehenik ez zitzakon iduritzen eskola ongi kurritzen zela. Eta hau berriz ez zen bizi otoitzarendako baizik. Deliberoa hartu zuen behar zuela eskola libro bat muntatu. Artean zenbait jende mintzaturik, huna nun erraiten dautan biharamunean behar ginuela mintzatu. Borda zahar bat baitzen apeztegiko ondoan, ea bada hartan ez ginuen sala haundi bat egiten ahal. Haatik merke! Eta zenbait kalapita erabilirik, horra nun guti edo aski arrañatzen giren. Hasten niz borda zaharra handik eta hemendik zilatzten, bertze lehio batzu tapatzen. Hargin pare bat ba nuen enekilan eta bertze pare bat peoinak.

Horra nun handik ixtanteko ezartzen duen alimaleko kalapita jendeen artean. Batzu alde. Bertze batzu kontra. Huna beraz eskola ja prest haurrak han emaiteko. Handik berehala jaun errotak egiten du prediku bat eta herriko haur gehienak bere eskolara biltzen. Erreinta eta erreintsa gaizok joan behar izan zuten eskola hortarik, haurrik aski ez izanez. Haiendako aski makur. Gure erreint gaizoa ibili zen etxetan siñadura keta, bainan siñadura guti bildu zuen. Izan ziren zenbait familia, ez nahiz erreintarekin ere

samur gelditu, nun eman baitzituzten haur bat eskola librora eta bertze bat laikora. Egiazki, irri egiteko ere ba zen aski. Eta gero, urte guziz beti nonbrea ttipituz joan eta handik zenbait urteren buruan ez ziren gehiago hiru baizik eta erreintsa bat.

Haatik eskola libroan erreintsa bakotxak behar zituen gutienez hamasei haur. Dena den, zenbait urteren buruan laikoan ez zen gehiago bat ere, eta orai joan deneko aspaldian eskola laikoa zerraturik dago haurrik ez izanez.

PLAZA LIBROA ETA TRINKETA BERRIA LAZKANOTEGI APEZARI ESKER

Horra eskolako ixtorioa fini. Bainan jaun erretora ez baitzen oraino arras lokartua, nahi ukan zituen ere mutikoak bere ganat bildu pilotan ar-arazteko. Jaun erretorak ba zuen lekua han berean, eskolaren ondoan, pentze puxka bat, zenbait urte lehenago jaun merak emana. Huna berriz gure jaun erretora nun deliberatzen den plaza libroaren egitera. Eta denbora berean hari datxikola trinket baten egitera. Horiek oro alimaleko lanak heldu ziren. Lehenik behar zen harria bildu eta ez zen lan errex.

Ba zen Urepelera teko bidean etxe bat: Urepele Batistaina. Harek ba zuen etxearen ondoan hariztoi bat, azpia dena harria. O! ez segur harria harginari irri eginaraztekoa, dena kaillao harria, bertze batzuek deitzen dutena: ur-harria. Huna gure erretor gaizoak nun arrapatzen duen horien nagusia. Jaun ertora eskuak hutsik. Bainan predikua aintzinetik prestatu rik, ekendu edo eman-arazi zakon nahi zuen harria. Handik berehala izan nintzan harri horren ikusten eta etxe hartako nagusiak erran zautan:

— Bai, zuen jaun erretorak eman-arazi daut plaza baten eta trinket baten egiteko harria.

Eta erraiten dakot:

— Eta zonbat pagatzen dautzu metra kuba?

— Bai, ez daut aipatu ere harriaren pagatzerik! Bainan konprendi-arazi daut ordainez gure Jainkoak segur atxikiko dautala zeruan leku bat ederra! Segurki ez da guti. Ba dakizu: hemengo bi egunen pagatzeko, zenbait sosen gatik, hango eternitate guzikoa segurtatua dut!

Ez ba zuen arrunt sinetsia ere, beti parte on bat eresia zuen gure Koxe-k!

Gero gure ertor horrek, harria segurtatu zuelarik, behar zituen haritz-ondoak trinketaren esaltzeko. Eta orduan berriz huna nun abiatzen

den etxez etxe haritzondo galdez. Zenbait etxetan beretan biltzen du behar duen haritza. Orduan behar zuen segidan zurgina abisatu arbolaren horien hautatzeko eta botatzeko. Hortik berehala pentsatzen nuen jinen zela segur ene ikustera horko murru horien guzien egiteko. Eta ba zen segur zenbait egunen lana. Eta eni hori gustatzen. Bainan ba nakien gu biak akort jarri orduko behar ginuela zenbait katzaka egin. Murru pareta batek balio baldin bazituen hamar libera, hari behar nakon beti bederatzi liberetan egin. Eta joanen zen noranahi prezioen jakitera! Eta kisuekin ere ez nuen segurki sosik irabazteko lanik. Gisu fabrika Urruñan zen eta jaun erretora ere bera hangoa izanki. Han ere erreusitu zuen nik ukaiten nituen prezio berean ukaittea. Gero oraino behar zuen salbea. Hori ere ez zen problema ttipiagoa. Alduden ba zen etxe batean, puxka bat mendian, salbe leku bat. Puxka bat arrunta zen, bainan hori kitorik baitzuen, beti horrekin egin gintuen lan guziak.

Huna beraz guziak zutik emanak. Zenbait zenbait egun emanik ba nituen. Sei hilabete hurbil. Zenbait aldiz lau hargin eta lau peoin.

Ahanzten nuen erraiteko: murruak hasi nituelarik jaun erretorak ekar-arazi zuen jaun apezpikua obraren benedikatzeko. Eta hortako

egin zuen herriak besta bat ederra, bezperatik lekua prestaturik. Jaun erretorak egin-arazi zautan lehenbiziko paretako murruan xilo ttipi bat, botoila bat barnean sartzeko. Orduan apezpi-kuak ezarri zituen botoila haren barnean paper batzu, ixkiriaturik ez dakit zer, eta hura eman zuen murruaren barnean. Eta lau kantoineko harri bat mortero puxka baten gainean. Eta erran zautan:

— Harri bat ezarri dautzut, jaun hargina, eta bertze gaineratekoen ezartzeko lana eta osagarria uzten dut zuregain.

Eta orduan benedikatu zuen obra egin behar zen hori eta gero joan zen. Eta ni bertze lagun zenbaitekin joan nintzan ondoko hotelera edari xorta zenbaiten hartzera, eta horra egun hartako besta fini!

PREDIKUA HASI ETA LURRERA ERORI PERLESIK JORIK

Huna nun biharamunean ene lana berriz haste. Jaun erretorak behar zautan materiala fornititu. Hortakotz ibiltzen zen etxez etxe langileen ondotik. Herri guzia anboxatu zuen lan horren egiteko.

Ba zuten zenbaitzuek arrangurarik aski, zio-
telarik:

— Ba naski beharko diau denek horrenda-
ko lanean arizan. Hauxe duk hori bitxoa jin zau-
kuna hunat!

Bainan gehienak halare kontent ziren erra-
bote eta trinket baten ukaitez.

Huna beraz, denbora joan eta joan, nun
bururatzen ditudan bada errabotea eta trinke-
taren murruak. Eta huna beraz errabotea egina,
prest pilotan artzeko. Bainan huna egun batez
gure Jainkoak nun denak kanbiatzen dituen. La-
runbat arratsaldean heldu da ene etxera, beti bere
konduetaz kestione. Apez gaizo horrek, jin ze-
larik, egin zuen lehenbiziko bisita gure etxera,
okasioniak hala emanik. Eta azkena ere gure e-
txean. Zeren, biharamun goizean, igandea zen.
Ikaragarriko hotza zen. Usaia nuen bezala joai-
ten naiz hamar orenetako mezara. Bikarioak
emaiten zuen meza, eta huna jaun erretorak nun
hasten duen bere predikua eta zenbait hitzen on-
dotik nun erortzen den aldare hegira! Zer ger-
tatzen zako bada? Gaizoa perlesia kolpe batek
bota zuen zabal zabala. Galeria gainerik fite fi-
tea joanik, nik eta bertze bi gizonak altxatu gi-
nuen eta bere ganbarara eramane. Medikua segi-
dan ekar-arazirik, pasatu zituen zenbait egun

ohean eta emeki emeki jin zitzakon balia puxka bat. Bainan burua ontsa gelditu zitzakon, zeren eta konduen egitean ez zen sekula tronpatzen!...

KONDUEN GAINETIK KALAPITAN!

Kondata behar dut aldi batetako ixtorioa. Jaun erretorarendako lanean eskolan ari nintzan batez, ba nuen bertze laborari baten etxean, alor batean, orgen pasatzeko malda zelakotz, azpiko aldetik egin behar nuen metra erdi gorako murru bat bidearen zelaitzeko. Hori zen lan bat errexa, eta ez zelakotz gora nun ere aski bainuen peoin bat.

Eta jaun erretorarendako ba nuen ere murru andana bat egiteko, bainan lau metra gorako murruak. Emanak nazkon prezioak. Bainan, errana dutan bezala, beti arrapatzen baitzituen karioegi, eta jakin zuelarik hauzoko etxe hartan ba nituela lanak egiteko, huna nun jin zitzakon gogora behar zituela etxe hartan ikusi. Galdegin ziezteen eta haiek, bixtan da, erakutsi. Horra ba nun ikusten duen haiena berrogoita hamar libera metra kuba eta berarena berriz berrogoita hamabortz libera! Ene erretor gaizoa horra nun jauzten den eta igortzen dautan komisionea biharamunean bi mezen artean joai-

teko, eginak nituen lanen konduarekin. Biziki bitxi iduritu zitzautan. Ene baitan egin nuen, du-darik gabe ukan zukeela sos puska zerbait nunn-baitik. Joaiten niz. Bortan sartu eta arrapatzen dut ene gizona usaian baino kopeta zimurrago. Nihauren baitan nindagon:

— Jes, zer gertatzen duk ba?

Ez nezakeen pentsa. Erraiten dakot:

— Agur, jaun erretora.

Eta errepostua:

— Txauri goiti, bulegora!

Joaiten nitzako eta gizona zuritua, erraiten daut:

— Errazu, bainan zer tuzu manera horiek? Ba dakizu arras ontsa ni zer kondizionetan ari nizan lan hauen egiten. Eta orai zuk hauzoan amerikano aberats bati egiten dakozu murrua berrogoita hamar liberetan eta eni pagarazten berrogoita hamabortz libera!

Hasten niz esplikatu nahiz. Bainan ez zen errex. Eta apeza nuen apoa bezala zuritua. Eta ni berriz tomatea bezala gorritua. Eta azkenean esplikatzen dakot zertakotz den liferentzia. Alabainan lau metra gorako murru batean behar dira bi peoin, eta aldamu egiten ere haunitz den-

bora galtzen da. Bainan etzaiken sumeti. Eta horra nun erten dautan:

— Bono, sarri predikutik erranen dut!

Orduan ni ere jauzi eta erran nakon:

— Bono, hola egin gogo baldin baduzu, nik emanen dautzut errepostua gainetik!

Ikus ea diskuzioeak berotuak gintuenetz!

Lehenbizian egon nintzan beldurrez, batere ez nuela joan behar mezara. Bainan gertatzen zena gerta, halare joan nintzan. Eta deusik ez zuen erran! Nik ere ez. Bainan kontesko nintzan, eta orduan ezagutu nuen erretor hori ontsa. Meza ondoan egon nintzan berriz eleketan, eta errealki ezagutu nuen goizeko kolera hura pasatua zuela eta konprenditu zuela ene esplikazionea. Gauza bat ba zuen partikularra: samurtua izana gantikan, hamar minutaren buruko pasatua zuen bere kolera. Ba zituen bere estakuruak, guk denek ditugun bezala, bainan zen apeza, izigarri otoitz-egilea. Hitzemaiten dautzut harekin hurrek behar zutela katixima ontsa ikasi. Bainan ukan zuen perlesia hortarik ez zen sekula laneko hun gelditu. Eta horren gatik, harek egin-arazi zauzkitan horietarik gelditu zen lana frango finitzeko.

LEHEN KORALA ETA KERMEZA ALDUDEN

Ondotik igorri zuten ertor bat izigarri goxoa. Izena zuen: Dufau. Eta hari eman zakoten bikario bat guziz baliosa. Izena zuen: Urrutia. Urruñarra zen. Terrible predikaria zen eta obran gustu haundia zuena. Hala nola trinketa gelditua baitzen leihorra ezarri eta, hura okopatu zitzautan haunitz horgo lanen finitzeko. Eta orai hori obra bat ederra gelditua dena. Zenbait eta zenbait pilotari artzen da segur trinket hortan.

Mutikoen eskola ere berak egiten zuen. Eta huna hortik zenbait urteren buruan nun igortzen duten Hazparneko misionestetara, eta hortik zenbait urteren buruan igorri zuten Aiherrara ertor. Bainan gaizoak ez zuen maleruski haunitz urtez baliatu, zeren hiruzpalau urteren buruan bihotzeko min batek ereman baitzuen bertze mundura. Makur haundia izan zen holako apez baten galtzea. Alduden hartaz orroitzapen huna atxiki dute jendeek.

Hunen denboran ere izan da xarmanteko korala, nun ere baiginen hogoi bat kantari eta ontsa entrenatuak. Bikario horrekin egiten ginuen ere urte guziz xarmanteko kermeza, eskola libroko erreint-erreintsen pagatzeko. Denbora berean

haunitz baliatzen zen herriko jendea ere besta eder baten egiteko, eta geroztik hunat, urte oro egiten da kermeza hori. Jendea izigarri atxikia da besta horri.

BOST HAUR: LAU NESKA ETA MUTIKO BAT

Ba dut orai arte berri haunitz kondaturik, bainan etxeko berriak ez ditut biziki kondatu. Haatik ba dut bizkarrean zenbait urte gehiago, nun ondarrean salatuko baitut zer adin dutan. Arte hortan ez nintzan, ez, segur geldirik egona.

Hamabortz urte ezkondu ondoan, ba gintuen bortz haur: lau neska eta mutiko bat. Ezkondu ginen egunean erran nakon ene esposari:

— Baldin haurrik ukaiten badugu, ez ditut segur, posible baldin bada, haurrak eskolatu gabe utziko.

Eta orduan, adina jinez bezala, bi nexka zaharrenak ezarri gintuen Uztaritzeko pentsionean, nun horietarik atera bainintuen bi erreintsa eskola libroetako. Hirugarrena, mutikoa, Betarra-men hemezortzi urteak artio. Laugarrena, berriz, nexka hura ere, Uztaritzen; eta ttipiena, nexka hau ere, joan zen Angleterrara steno anglesaren ikastera; eta huna nun bi urteren buruan jin den

egin gogo zuena ikasirik, eta arrapatzen duen leku bat amerikano aintzindari batzuen bulego batean. Eta urte baten buruan hortik airatu zen eta ezagutzak egin zituen mutiko gazte xarmant batekin, betroin batekin, biziki familia hunekoa-ekin. Eta orai bizi dira Kanadan. Koziner bat arraroa du senarra. Orai jarriak dira etxe bat ederra erosirik. Jiten zauzkigu kasik urte guziz. Haurrek mintzo dute anglesa, frantsesa eta euskara puxka bat.

HEGO AMERIKAN ETA LAOS-EN MISIONEST

Alaba zaharrenak, Uztaritzen berean eskola emaiten ari zena zenbait urte hartan, huna nun anontzaten daukun, ordukotz ba zituen hogoi ta lau urte, joan behar zuela misionest. Ez nuen batere halakorik esperantxa, bainan ez ginakon segurki batere kontrarik egin. Misionest horiek Tolosan baitzuten beren etxea, zenbait hilabete-
ren buruan komentu hortan sartu zen. Hitzemaiten dautzuet lehenbiziko lauzportz hilabetez ez zela segurki gizendu biziki. Bainan beti alegera zen.

Handik urte pare baten buruan igorri zuten Hego Amerikara. Hor berehala ikasi zuen

española eta hor egon zen bortz urte. Han ere ez zen segur geldirik egon. Eskola libroko sala bat muntatu zuen eta haur andana batekin bi erreintsa eman. Gero Frantziara sar-arazi zuten berriz eta superior izendatua izan zen. Eta gero berriz harat itzuli zen. Ba zituzten han hiru edo lau komentu muntatuak. Berriz hor egon zen bortz edo sei urte.

Gero berriz galdegin zuten Tolosara, zeren sei urtetarik muntatzen baitira superior guziak, berriz superior jeneralaren izendatzeko. Batzuetan lehengoa bera izendatzen dute eta bertze batzuetan emaiten dute berria. Eta horra nun, bera ikaran zagona, berriz bera izendatzen duten. Eta handik zenbait egunen buruan partitzen da Laos erresumara. Eta han pasatzen ditu sei urte segurik. Alta hor ere beti gerla zuten elgarren artean. Hemengo gisan, hor ere dena politika. Hortik erabiltzen zen kurri, batean zela Indietan, bertzean Japonian, bertzean Ameriketan eta bertzean ez dakit nun oraino.

Bainan hara, denbora jin denbora joan, nun egun batez komunistak hor sartzen diren Laos-en eta ordrea ukan zuten zortzi egunik barne handik lekutzeko. Eta horra orduan berriz Frantziara itzulia bere lagunekin. Eta orai, jinean jin, horra orai nun Tolosan dauden.

Bainan nik uste hor ere arrapatzen duten ongia egiteko, nahi badute, lana frango. Ez doatza nik uste hemen ere onduz, nahiz ez dakitan nola behar duen komentu horrek ere finitu, zeren ez da gehiago bihi bat komentu hortan ere sartzan, nahiz bertzetan ere holatsu den. Horra beraz nola doan gure nexka zaharrenaren denbora. Orain betetzen ditu berrogoita sei urte.

LIBAN-EN ESKOLA EMAILE

Aldiz, bigarren nexka hori Uztaritzetik eskolak finitu eta joan zen eskola emaitera Hazparnera zenbait urtez. Hirugarren nexkak eskolak finituak zituen biziki gazterik. Eta orduan deliberatu zuten bi ahizpek Tolosara joatea eskola emaitera, zeren han baitzuten ahizpa zaharrena serora. Eta hantxe jarri ziren biak eskola emaiten komentu batean eta han pasatu frango urte. Eta horra nun hek ere airatzen diren. Eta oraino gazteena lehenik, hogoita sei urteko *ingénieur* batekin. Hak ere Tolosan eginak zituen eskolak. Ezkondu eta joan ziren Libanera. Eta orain han bizi dira, Beirouth-en, Liban-eko hiri kapitalean. Senarra ari da lanean aeroportuan. Alaba aldiz ari da eskola emaiten. Harek izigarrri maite du eskola emaita. Bainan han ere ez

daude segur bakean. Beti gerlan ari dira judu horiekin. Zernahi jende hortxe masakratzen dira.

Orai bi urte izana dut familia guzia Kanbora jinik hiru hilabeterentzat, otoan jinik. Sei edo zazpi erresumetan pasaturik jin ziren zazpi lagun R 16 batean. Bidean eman zuten hamar egun Beirouth-etik eta Kanbora. Otoa bi lekutarik balaz zilatua: lehenik handik abiatu eta berehala, eta bigarrenekorik Ziriako erresuman sartzean. Bainan ez baitziren han hil beharrak!...

Gainerat, Italiara arribatu zirelarik ukan zuten ixtripu bat, eta hartarik ere nehork minartu gabe atera ziren. Alta ba ziren zazpi lagun otoaren barnean: lau haur, senar emazteak eta gelaria edo sehia. Aintzinean zuten kamion batek arrasta kolpe bat eman zuen eta hok kamiona hori gibeletik jo, eta hauen gibeletik biziki fite heldu zen otoak berriz hauen otoa, gibelalde guzia masakratzen zuela. Bainan nehor ez zen zau-ritu. Gero ziren gero komediak: italiano bi poliza gizonekin! Ene alabak eta haren senarrak bien artean bazazkiten bortz mintzaira eta bi poliza haieri pitsik ezin konprendiaraz. Ondarrean bi alderdiak arrunt kexatuak eta horra nun polizak erraiten dakoten gibelera itzultzeko. Bai, hartarik ari ziren! Harainokoan hoinbertze gostaia izanki bidea eta! Orduan ihardesten dako xoferrak:

— Hori nahi baduzu, hemen berean hil gitzazu denak, bainan ez gira segur gibelera itzuliko!

Eta horra nun azkenean uzten dituen beren gisa eta segitzen duten bidea. Lehenbiziko gajara batean arrañatzen dituzte argiak eta numeroak, eta sartzen dira Frantzian eta arribatzen Kanbora, otoa alde guzitarik masakratua. Iri-sarrin arrañarazi zuten eta ba zuten zortzi ehun mila libera xaharren gastua. Bakantzetako behar zuten sosa hor enpleatu zuten. Pasatu zituzten hiru hilabete Kanbon beren erresumara ezin sartuz, beti gerlan ari zirelaketz. Eta noizbait puxka bat eztitu zelarik, horra nun partitzen diren. Ez nuen ene denboran bertze hogoi egun holakorik pasatu ene bizian, hainbertze arrangurarekin. Eta bizkitartean haratekoan xarman-teko bidaia egin zuten. Jakinik, ez nuen segur hainbertze arrangura atxikiko. Dena den, hara arrangura izigarri hori pasatu eta nun orai berriz deliberatuak diren aurten berriz jitera sei lagun. Bainan aurten haatik airekoz. Hola beren etxetik lau orenez Parisen dira. Segurki gure Jainkoak argia egin beza.

Horiekin heldu da ere bertze alaba: Marie Therese, Montreal-en, Kanadan direnak, senar emazteak bi haurrekin.

Lenguaia ikasteko errextasuna duenak izanen du xantza ikasteko anglesa, espainola eta araba. Izanen dira bortz haur, sei urtetarik eta hamabortz urte artekoak. Batto mutikoa, bainan segur adineko argituak, inteligentak eta perestuak. Loriaua nago horien esperantxan. Oraino hiru hilabete beha... Atzo galdegina dut baratzearen lur itzultzailea. Segur aski errekomendazione ukan dut ereiteko patata, landatzeko haunitz tomate, haunitz biper eta leka. Orai due-la bi urte, ez da permis, zenbait zenbait fruitu bildu ginuen baratze hortan, dela tomate, biper eta leka. Agian aurren ere urte huna eta lanean artzeko xantza ukanen dugu.

HOURECABIE KOLONELAREN IKUSTERA

Goazen berriz Aldudera. Huna beraz gure haur guziak eskoletan. Zer balentria hori aita eta amarentzat. Hara lehenbiziko hiru nexkak Tolosan komentu batean eskola emaiten. Laugarrenak, mutikoak, ez zuen oraino arras leku finkatua arrapatua. Nik banakien zer zen haren nahikundea, bainan ez baitzagon eni mintzatzea, lehenbizian atxikarazi nuen aprendizgoan zenbait denbora enekin hargintzan ikasten. Eta gero, urte bat eta erdi, Tolosako entrepreneur batekin,

eta gero ondar egunak enekilan berriz. Arras ongi ohartua zen hargintzari. Bainan huna nun heldu zakon soldado egitera joaiteko galdea.

Denbora hartan denak pasarazten zituzten Algerian. Eta zenbait hantxe hiltzen ere bai. Bainan ba dakizu, bizi huntan bakotxa deprullatzen baita ahal duen bezala, huna zer jin zitzautan gogora. Emazteari erraiten dakot:

— Orroitzen zirea, Ana, lehen ere kondatu baitautzut banuela Gasnategin enekin egona zena, jandarma seme bat? Ez dakit nork errana dautan, bainan izena zuena Hourcabie bazela Tolosan izigarriko ofizier bortitza.

Eta huna nun egun batez gertatzen nizan pil. Ba nuen iloba bat Alduden, soldadogoa egina zuena Tolosan, eta horra, hari aipatzen dakot, soldado egon zen denboran ea ezagutu zuenez mirakuluz aintzindari bat, ez nakiela xuxen zer grado zuen, baina izena zuela Hourcabie. Eta jauzi bat egin zuen. Barkatu, haren lehenbiziko hitzak hauk izan ziren:

— Ai, urdea! Ba, ba. Kolonela duzu nik uste. Denak haren beldurrez ibiltzen ginen.

Gero kondatu nakon lehendanik nola nuen ezagutzen. Egin zautan:

— Bai, bai. Joaiten bazira, han hatzemanen duzu. Ez dakit haatik hurbilduko ziren.

— Ba, alta joan behar diat haren ikustera.

Gainera okasione ederra ba nuen harat joaiteko, alabak han izaitzarekin. Eta orai kondatuko dut harekin ukan nuen lehenbiziko solasaldia. Azkenik ikusia nuen 1925-ean. Orduan oraino sardient zen naski. Geroztik ez nuen behin ere ikusi, Heldu baita hogoita hamalau urte ez nuela ikusia. Huna nun lehenik jakiten dutan nun zen hare *Etat Major*-a. Hurbiltzen niz harat eta ba ziren bi portale haundi burdinazkoak. Eta hara nun salututzen dutan sentinela. Eta galdegiten dakot bulegoa. Han berean zen. Hor ba zen *sous-officiers* andana bat, eta *adjuvant* batek galdegiten daut ea zer desiratzen nuen. Bai, nahi nuela Colonel Hourcabie ikusi. Eta erraiten daut:

— Ez da hemen.

Erraiten dakot banaki bezala:

— Ba, ba dakit hemen dela.

Handik ixtant bat norapait lekutu zen, eta berriz heldu zaut eta erraiten daut emaiteko ene adreza. Harekin joan zen eta bulta baten buruan berriz jin. Eta orduan eremaiten nau bertze bulego batetara. Hor uste dut zela kapitaina eta

hara ondarrean nun hunek eremaiten nauen horren bulegora. Bainan, egia erran, doi-doia ezagutu nuen. Harek ba, biziki hobeki ni. Bainan ez da ideia bat egiten ahal harek zer plazerra ukan zuen ene ikustea. Ez nuen sekulan holarikorik pentsatzen. Geroztik egona niz pentsaketan zendako harek ni fiteago ezagutu ninduen nik hura baino, zeren hura zahartua zen. Alabainan kolonietan gerlan ibilia zen eta arrunt mehe. Ni aldiz haren aldean oraino freskoago. Ez ginen haunitz denbora egon ahal izan, zeren baiginuen berri haunitz kondatzeko. Bainan justu justua oren erdi baten buruan esperantxa zuen jenerala. Beti, partitzean erran zautan:

— Orai hasteko nahi nitek hirekilan egon egun erdi bat.

Eta hara nola, errana bainakon nexka zaharrena serora sartua zela Tolosako *Missions Etrangères*-etako komentuan, erran zautan:

— Behar diat bihar berean, posible baldin bada, haren ezagutza egin.

KOLONELAREKIN KOMENTURA

Huna biharamun arratsalde apalean nun heldu den komentura. Esplikatua nakon nun zen

komentu hori, zeren Tolosatik kanpo baita, Lamothe deitzen den gaztelu zahar batean. Eta erran zautan:

— Ba zakiat nun den.

Zeren aspaldian han zen ofiziera zen.

Lehenbizian ez nezaken nihundik erraiten ahal «*tu*», beti «*vous*» erraiten nakon, eta erran zautan:

— Ba dakik nor nizan, ba dakik ere nola egonak giren Gasnategin elgarrekin. Hartakotz ez diat nahi hik eni «*tu*» baizik erraitea.

Ba dakizu ez zela aisa enetako. Lehen mutiko txar bat zelarik ezagutu nuen. Bainan gero, kolonel arropan bere medailekin zelarik, bertze itxura bat zuen ene bixtan. Soldado ere egona nintzan eta ba nakien kolonel batek zer larde-ria zuen. Guk menturaz ez hainbertze, baigina- kien ez zela gure gana jinen guri zerbaiten gal- degitera; bainan ikusten baiginituen, gu harri- turik atxikitzen ginituen aintzindariak, nola harrituak egoiten ziren. Ez dut uste haatik ne- hor ba zen nigarrez ari zenik, segurrago pen- tsatzen zutenak:

— Bai, bai! Urdeak! Erdiak preso sar bali- tza, ez luzkek damu.

Bueno, sobera urrunegi joan gabe, behar dut erran nola beha ginauden hura noiz jinen zen. Eta horra nun heldu den xarmanteko gizona bere ordonantzarekin. Hor errezebitu ginuen superior jeneralak, ene alabak eta nik. Eta hain justoki ba zen Hego Amerikako apez bat frantsesa arras polliki mintzo zuena. Horra nun superiorak gomitatzen gaituen denak elgarrekin afaitera. Eta arratseko hamekak airean horra nun partitzen den gure kolonela, eta horrekin batean joan zen Tolosara apez hura ere. Bainan partitzerakoan erran zautan:

— Orai behar ginikek orduan ardura elgar ikusi.

Ez nuen bertzerik nahi, zeren semea joan beharra zen fitesko soldado. Eta orduan banuen segur bertzerik kasko gibelean, zeren denbora hartan mutiko gazteak mobilizatzen zituzten Algeriara igortzeko.

Aldudetik urrun zela Tolosa eta naukan ez nuela nahiko nuen bezain usu ikusiko. Bainan xantzak ekarri zuen. Ba nituen bertze bi alaba erreintsa Tolosan eskola emaiten ari zirenak. Hek ere ezagut arazi nazkon eta denak ene alabak zirelaketz, adixkidetu ziren. Frango aldiz gomitatu izan ditu bazkaitera. Partikulazki orroitzen naiz aldi batez gomitatu zituen hiru ahizpak,

erran nahi dut serora barne, erranik behar zutela ardi gazte bat su bazterrean osorik errerik jan, eta denek egin zuten besta elgarrekin. Haiek senar emazteak eta ene hiru alabak. Eta zein ongi gertatu zen enetako, nik galdegin gogo nazkon gauzen galdegiteko. Haunitz gauza ba nuen aspaldian ardietsi nahi nituenik, ez ordea nehor ezagutzen kuraia hola azkar zuena. Eta ikusi nuelarik izigarriko borondatea ba zuela enetako, hara non, errana den bezala, ongi egin bat ez dela sekulan galdua. Zinez hori egia da.

Huna, zeren bainuen ene semearendako arrangura, zeren gazte guziak eremaiten baitzitu-
tuzten Algeriara, eta han gerla ari eta bakar zen-
bait ere beti hiltzen. Eta orduan, bertze aldi ba-
tez, Tolosara joan nintzan batez, huna nun
joaiten nizan haren ikustera eta nola erraiten
dakotan:

— Errak, Henri: erran behar deat gauza bat. Ixtante semea soldado altxatua izanen duk eta ba dakik batzu segidan igortzen dituztela Algeriara. Eta gauza horrek izitzen nik, zeren gure hauzoan, Urepelen, ba diau mutiko gazte bat xarmanda bere bizia han utzi duena. Eta ez hukea zerbait egiten ahal horrendako?

Eta erran zautan:

— Hemen baitiat bi *région* nik manatzen ditudanak. Eta lehenik, nun nahi huke hire semea plaza dezatan soldado?

— Ba, hori, pentsätzen diat nik baino hobeki dakikala.

— Bueno, ene iduriko, nik ezar nezakek Auch-en. Hor beti ene eskupeko nitek. Bainan erraiten daiat ez dutala hala hala podorerik aski Algeriatik eskapa-arazteko. Zeren baituk ministroen semeak ere han direnak eta gerlan ari.

Bainan segur kontent nintzan, hiru-lau hilabete lehenik Auch-en pasa zitzan. Egiten nuen:

— Menturaz artean finituko duk gerla hori ere.

Beti, artean ene alaba horiek ikusten baitzituen, bai eta ere bere etxera gomitatzen, eta horietarik ba zakien ene seme horrek ba zuela terribleko boz ederra, tenorra. Gainera errana zakoten ba zuela ideia eskolak egiteko kantuari buruz. Nik ez nakon inportantzia haundirik ekartzen gauza horri, zeren ez bainuen konprenditzen ofizio bat egiten ahal zela kantuarekin. Orai konprenditzen dut, bai, segur hobe dela, hargintzan aita arizan den bezala, berrogoi urtez eta egun guziz akitua lanean familiaren haz-

teko, eta gainera osagarria azkarki minberatua (esplikazioneak emanen ditut urrunago) ibiltzea baino.

SEMEA AUCH-EN FERIA EGUNEAN KANTUZ

Horra beraz nun egun batez heldu zakon semeari soldado joateko galdea Auch-era. Hara beraz ene adixkidearen ongia. Horrat joan zelarik, berehala izan zitzakon Auch-en eta igortzen dako billeta bat pasatzeko kolonelaren bulegoan. Zenbait aintzindari harrituak ziren nor ote zan mutiko gazte hura. Bixtan da entseiatu zirela jakitera fite nor zen. Bainan gero hara jeloskorrak haste.

Hara Auch-eko ferien idekitzeko lehenbiziko eguna nun den jina eta horra nun kolonelak igortzen dakon Auch-era bere ordonantza semearen bila kantuz artzeko, eta arratsean harek berak nun igortzen duen kasernara. Bainan han ba zuen, kolonelak berak batere ez zakiela, *lieutenant* bat ikusten ahal ez zuena. Hura berea gogoan zagon, segur egun batez behar zitzakola mendekatu. Pentsatzekoa zen. Egon zen zenbait egun beha, haren hutsean arrapatzeko, zeren ba zakien fite hatzemanen zuela. Huna egun batez

nun heldu den bi egunendako permisionez. Eta Auch-era itzultzeko behar zen Tarbes-en treinatik jautsi eta gero autobus batean joan Auch-era. Eta autobus harek ba omen zuen beti beranta. Eta orduan kasernara arribatzean, beti beranta zuen. Menturaz oren laurden bat edo hola. Bainan, debru zaharra, bertze hura han izanki. Eta erraiten dako:

— Etxebarne, ba dakizu permisionea gauerditan finitzen delarik, behar dela gauerditan sartu. Tenore hori pasatua duzu. Ondorioz eginen dituzu zortzi egun presondegi!

Funtsean emaiten ahal zakon haundiena zen. Bainan bertze tigrea han baitzen Tolosan eta artean izana semea haren ikusten murrua jauzirik. Horra beraz nun arribatzen den *lieutenant*-aren punizioea kolonelaren bulegora. Eta punizione horrek behar zuen hain segur hogoi egunen emendioarekin handik atera. Bainan hala izaiteko orde, harek zer egin zuen? Dena marratu!

Orduan *lieutenant*-ak hori ikusi zuelarikan, berriz leizorra bezala gaixtatu zen. Eta geroztik beti gibeletik zuen nun arrapatuko zuen hutsean. Hala nola presentatu zituztelarik *caporal-chef* pasatzeko, hura debruillatu zen kargu hori pasa ez zezan. Bainan hainbertzetaraino zen futitzen,

bertze aldia frangoz ere igortzen zakon bere xoferra halako mezan kantatzeko edo holako aintzindarien *foyer*-ean kantatzeko. Eta semeak ez egundaino erraiten kolonelari nola egiten zakon.

Orroitzen naiz handik zenbait urteren buruan hantxe Baionan nola kondatu zazkon ixtorio horiek eta erran zakon:

— Bainan zendako ez zinazkitan orduan erraiten horiek? Lekuz kanbiaraziko nuen berehala.

Beti, frango hilabete pasarazi zazkon Auch-en.

Bainan ba dakizu denek ere hogoi urte, eta denek ba zituzten beren jipak, eta denak elgarrekin beroturik galdegin zuten naski Algeriara joaitea. Pasatu zuten frango denbora hunik, bainan nik uste pasatu zituzten memento txarrak ere. Itsuskeria frango ere legionerek egiten zituzten: begi errotik ateratze edo mihi mozte eta holako. Hasteko, finiturik etxera jin zirelarik, mutikoak kasik denak markatuak ziren. Joan ziren zenbait hilabete, horiek berriz lehen ziren bezala jarri orduko.

Zenbait hilabetez arizan zen enekin lanean. Arras polliki ohartua zen hargintzako lanari. Gero hasi zen konprenditzen, aintzinean zituen

ideia hek zirela harendako hoberenak. Ez zautan deusik erraiten, bainan errealki ezagutzen nuen ez zela haren gogoia hargintzan artzeko, nahiz harentzat makur haundia eginen nuen ez banu utzi ere. Alderdi batetik ba zuen *default* ttipi bat gerruntzean gelditua, eskolan gaizki jarrita egonaren ondorioz.

Nik aintzineko urtean, hura Algeriatik jin aintzinean, erosiak nituen kamioneta berria, betoneza eta altxakarga bat. Lanak errextuak nituen. Bainan errana den bezala, «guk pentsa eta Jainkoak zati» baita mundu huntako bizia, eta bertzalde ezagutzen nuen ene adina joanki eta indarrak harekilan. Eta osagarria beti eta penibleago, laneko trenpea ere arras ttipitua. Gainera ikusten nuen semea joanen zela. Eta nexkak denak joanak. Ene pentsamendu ederrak horra aintxuño deseginak. Halako etxe ederra egina nuena, egun batez haur batek plazer hartuko zuela ukaitez. Bainan halere konprenditu dut egun batez, urte batetik bertzera haunitz gauza kanbiatzen dela. Eta orai hek ere, baño salbu, bertze lau haurrak bakotxak beren etxekin dira eta denak uros. Galdegiten dakot gure Jainkoari hola izan diten luzaz. Ba ditut ere zazpi iloba guziz xarmantak eta intelijentak. Jainkoak plazer ba du, heldu den uztailean eta agorrilean bi hilabete elgarrekin pasatuko ditugu.

OSTATUAN KANTUZ OPERAKO KANTARI BATEN AINTZINEAN

Behar dut semearen geroko segida kondatu. Huna nola hasi zen haren lehenbiziko partitzea bere ideietan. Astelehen batez joan zen Donibanera eta han ba ziren bizpahiru lagun elgarrekin. Kantuz ari zen bertze batekin ostatu batean eta horra nun jaun bat sartzen den barnera. Eta han egoiten ixtanpat haren aditzen. Eta huna nun erraiten dakon, ausartzia zela bainan nahiko zuela jakin nungoa zen. Han ixtanpat eleketta egonik erraiten dako:

— Huna. Nik etxea Ezterenzubin dut. Bizi niz elizatik seirehun bat metra goraxago. Han egina dut ene xaleta eta han bizi niz ene emaztearekin. Lehenik erran behar dautzut sartua nintzala kuriositatez, zure boza aditu eta. Ni operako kantari bat niz eta nahi zinuzket ene etxean aditu kantuz. Emaztea ere kontserbatorioan dut Parisen, bere karrera han egina duena.

Etxean ba zuten, bixtan da, pianoa. Horra nun semea joaiten den horien ikustera eta arazten duten kantuz. Ba zakien ere solfeja puxka bat. Pentsa, han plazer hartu zuen. Eta erran zakon:

— Zure boza hurbiltzen da haunitz Georges Till-en bozari. Eta nahi ba zinu, egiten ahal zinue karriera bat xarmanta. Behar izanen duzu haatik zenbait urtez eskolan ibili. Eta egun batez, menturaz, sartzen ahalko zira Operan.

Huna ene gizona arrunt airatua. Alta maite zuen ere hargintza. Huna etxera jin eta nun erraiten dautan:

— Ba, uzten banuzu, ba noa.

Erraiten dakot:

— Gaizoa, hiaurek behar duk ikusi hori.

Ikusten nuen pena zuela haunitz ene uztea ere. Bainan ez nakon kontra egin nahi. Ez nintzan menturaz hain satisfos. Eta beharrik utzi nuen bere buru. Geldi-arazi banu, ez nuen segur astokeria txarra eginen. Bixtan da, nik ere erraiten dut, orai ikusita. Beti, horrek egin zuen jokia. Berehala presentarazi zuten bozaren etsaminatzeko eta aise onartu zuten. Gero handik hamabortz egunen buruan behar zuen solfejaren etsamina pasatu. Hartan ba zakin puxka bat, bainan ez apentziarik ere aski. Orduan ez zen pasatu. Eta horrek obliatu zuen urte bat gibelatzera. Harendako aski makur. Bainan Ezterentzubar kantari horrek erran zautan, ikusten izanik Alduden:

— Ez zitela lotsa. Orai aurten ikasiko du solfeja errotik eta gero segur da kontserbatorioan sartzea.

Urte bat aski penible izan zen harendako eta bai guretako ere, zeren han urte batez bizitzeko behar da moltsa azkar. Bainan arrapatu zuen berak gauazko lan bat usina baten zaintzeko, irabazi ttipi bat emaiten zakona. Aitak ere emaiten zakon zenbait sos puxka. Beti, urtea luze baldin bazen ere, hor pasatu zen. Artetan hartzen zituen kantuko leitzone batzu, hiru mila libera xahar orena pagatuz. Izigarri zitzakon, bainan orai galdegin behar hari ea zenbat pagarazten den orena.

Horra beraz urran urtean nun preparatzen den etsamina pasatzera kontserbatorioan sartzeko eta nun erreusitzen duen. Bainan gero, Operari buruz jokatzeko, behar izan zuen serio-ski lanean arizan eta kapazitaterik aski izan. Ba dira hor kontserbatorio hortan hiru lau urte lanean arizan direnak eta ez baitute erreusitzen. Bainan hau bi urteren buruan huna nun ateratzen den *opéra comique* hortako. Jakiten ahal duzu hunen bozkarioa ba zela zerbait. Arrazoi-nekin. Eta ene plazerra ere ba zen zerbait.

SOLDADOGOAN UKAN BRONTXITAREN ONDORIOA

Huna beraz etxean jarriak senar emazteak bi mutilekin. Bainan ikusten nuen ene osagarria beti eta txarrago zoala. Neguan hasteko frango aldiz behar izaiten nituen lau bortz egun ohean. Bi mutilak okoputzen nituen, batean parpin egiten, bertze aldi batzuez brika egiten eta hola. Bainan ikusten nuen hola ez nintzala urrun joaiten ahal eta bizkitartean bizi behar. Bainan gure Jainkoarekin ba nuen beti konfiantza ez ninduela segur galtzera utziko. Eta horra nun egun batez gure etxera heldu den *assistante sociale*-a: andere Hariñordoki. Eta ni orduan ere etxean eri. Huna nun emazteak esplikatzten dakon nola ene brontxita hori arrapatua nuen soldadogoan.

Huna nola. Egun batez jarri nintzan hogoi-ta hemeretzi sukarrekin. Eta berehala igorri ninduten karro tzar batean. Ba zen aski soldado batendako. Beraz hortxe pasatzen ditut ilabeteak eta igortzen nute etxera ilabete batendako. Bainan beti gelditu zitzautan eztul erreستا bat. Eta amak erraiten zautan etxean:

— Hori ez duk deusik. Heldu den udan arrunt joanen duk.

Puxka bat egia zuen, bainan arras ez. Horrek beti puxka puxka indarra hartzen zuen urte guziz. Ospitaletik partitzean eman zauzkidaten paper batzu nun emaiten baitzuten ene brontxitarren berri. Bainan ni gaizoa beti kontent nintzan handik partitzeaz. Eta emeki emeki paper haiek denak etxean galdu ziren. Horiek galdegin zauzkitan *assistante sociale*-ak. Eta alta nahi ninduen lagundu. Orduan erran zautan:

— Nik ba dut anea bat Ezpeletan ertor dena eta bera deporte haundi bat da eta frangoz okoputzen da pension militaire horietaz. Eta frangorekin erreusitzen du.

Halare entseatu zen luzaz eta ez dakit arribatuko zen burura.

Beti, dena den, badakizue emaztea duzuen gizon horiek, behar dela haunitz aldiz emazteak erranari ere behatu. Horra beraz, emazteak erraiten daut:

— Errazu: pentsaketan egona niz. Zu Paueko Ospitalean egona zira.

— Bai.

— Orduan ba ginuke xantza bat zerbaiten egiteko.

Huna zer den. Emazteak badu ahizpa bat *soeur des missions étrangères*, eta etxe hortara

ba zen apez omonier bat egun guziz biltzen zena. Eta hori ongi adixkidea ginuen. Hona nun erraiten dakotan:

— Duela berrogoi urte hurbil izana niz ospitale hortan artatua brontxita batendako. Bainan paper hek denak galduak ditut. Eta orai, hek izanez, segur arribatuko nintzan pentsione baten hunkitzera. Eta orduan, zu egun guziz joaiten baitzira kasernara, zuk pentsatzen dut hango mediku xefa ezagutzen duzula. Ez zina-kokeia zerbait aipatzen ahal?

Eta erraiten daut:

— Bainan ez dut uste artxiba hek hor diren, zeren okopazione denboran Limoges-ra igorriak izan baitziren.

Eman zautan hango adreza.

Bainan huna biga edo hiru egunen buruan nun heldu zautan ene paperekin. Mediku xefari galdegin zakon eta huna nun bien artean arrapatu zituzten. Huna nun ene iguzkiak zuen berriez dirdira bat ederra hartu.

Paper horiek ezarri nituen Ezpeletako Harriñordoki ertoraren eskuetan. Eta beti orroitzen niz harek nola erran zautan:

— Orai bagona ezarria dugu *sur les rails* eta askiko da pusatzea.

Zinez apezaren arrazoina. Harek egin zauzkitan dozier guziak.

Ba nuen ere bertze paper bat. Hala nola mobilizatua izan bainintzan 1939-an, ene burua eri ekarri nuen. Eta huna nun igortzen nuten Baionako ospitalera *en observation*, eta ilabete baten buruan igortzen nute *capitaine major* baten ganat bisitaren pasatzeko. Eta huna hunek nun emaiten dautan bertze paper bat *réformé définitif pour bronchite chronique*. Haatik paper hori kontserbatua nuen. Beharrik. Horrek erakusten baitzuen lehenbiziko paper haren segida zela. Izan nintzan ere Donianen (Donibane Garaiz) Housset medikuaren ikusten eta egin-arazinakon *certificat* bat nola zoinatua ninduen 1929-an brontxita zahar batendako. Alduden egona zen mediku ere eta zenbait urte hartan joana zen Perpignan-era. Hari galdegin nakon ere egin zezautan *certificat* bat, nola artatu baininduen brontxita batendako 1932-an.

Beti horra hor ere ene dozierra berriz emendatua. Horiek denek galdegin zuten haunitz denbora. Bainan oroitu nintzan horien denen fite martxa-arazteko ba nuela gizon bat karaia azkarra zuena eta segur nintzan enetako eginen zuela behar zena. Eta fite. Eta hala gertatu zen. Dozier hori Bordelen zagon kokaturik eta erran

nakon letra batean zer paperen egiten ari nintzan, eman ez esplikazione guziak. Eta artean bera izendatua izan zen jeneral eta Baionara jina. Enetako xarmanki heldu zen orduan dozier horren kurri-arazteko fite. Ba zuen berak ere xarmanteko xantza. Ba zuen anaia bat kolonel Bordelen. Hitzemaiten dautzut fite higitu zirela ene paperak.

Horra beraz nun ukaiten dutan galdea pentsionetako mediku espezialistaren aintzineran, Larresorora. Hori zen pentsione guzien emailea eta segur irrik ez zuena. Hala nola joan bainintzan ene emaztearekin, begian begi jarri ginelarikan gure espertarekin, nik uste ene emazteak nahiagoko zuen kanpoan izan balitz orduan! Erran behar dut egia, ez nizala sekulan nehon izitu egiaren eta arrazoinaren aintzinean. Huna gure lehenbiziko solasak. Pentsatzeko zen haren buru-aireak ez zuela karesazko solasik. Eta horra nun erraiten dautan:

— Zu zira M. Etxebarne?

— Ba, jauna.

— Bainan zu jina zira pentsione beharrez?

— Ba, jauna.

— Zure eritasun hori duela berrogoi urte huntakoa duzu zure arabera?

— Ba, jauna.

— Bainan ez duzu brontxita hori urte oro ukaiten?

— Ba, jauna, urte guziz.

Hortan ezagutu nuen ni gezurrean arrapatu beharrez ari zela. Bainan debalde. Eta holako zernahi galde. Bainan orduan kexatu nintzan eta ikusten bainuen ene dozierra han zuela bere aintzinean, erran nakon:

— Bainan, jauna, hunat ekar-arazia nauzue *interrogatoire* batendako ala pentsionearendako? Zeren zuk eni galdegiten dituzun horien errepostuak denak hor dituzu dozier hortan.

Eta orduan gizona kalmatu zen. Eta hartu zuen dozierra eskuan. Egin zautan:

— Txauri enekilan.

Pasatu ginen bertze barne batetara. Hor radioak ziren. Eta itzultzean erran zautan sekulan pentsatzen ez nuena:

— Bueno, ukanen duzu ehuneko 50.

Harritu nintzan. Bainan ikusi zuen bai nola hunkitua nintzan.

Bueno. Heldu gira hortik senar emazteak loriatuak. O, ez harek egin zaukun grazia eder hartaz, bainan ehuneko 50 hortaz. Eta jakiten ahal

duzu ez ginuela hortan gelditzeko ideia. Huna beraz gure lehenbiziko mandata hiru ilabeteren buruan. Harek plazer ederra egin zuela dudarik ez. Huna beraz iduzkia berriz edertua.

Handik eta hiru ilabeteren buruan galdegiten dut berriz emendioa. Eta emaiten dautate ehuneko 10. Hara iguzkiak berriz bertze dirdira puxka bat gehiago nun hartzen duen. Handik bertze sei ilabeteren buruan berriz egiten dut galdea (nahiz pusatzalea ere huna nuen emaztea), eta aldia hortan galdegiten dut ehuneko 100. Ba nakien ez zautatela emanen, bainan ba nakien ere ez zautatela ekenduko. Nahi nuen ehuneko 85-era heldu, gero segurantza sozialaren dretxoak ukaiteko. Bainan utzi ninduten aldia hartan gabe.

Bainan ez nintzan horren gatik gerla galduarik gelditu. Beti hor nuen ene adixkide hori behar orduko. Bainan ez nintzan batere behartu. Kondatu behar dut nola pasatu zen ixtorioa. Huna 70-eko negua berriz nun den jina eta nik beti ta gehixago hatsa kexatua. Eta huna nun ene alabaren misionest lagun batek erraiten dautan:

— Bainan zu nolaz ez zira joaiten Kanbora zure asma horren artatzeko?

Hura bera hor egona zen ba eta biziki kontent zen. Orduan ene Aldudeko medikuari nola

erran zautan misionest batek erran nakon eta ihardetsi zautan:

— Ba nahi baduzu igorriko dakot Leku-Eder-eko (*Beau Lieu*-ko) mediku xefari hitz bat.

Tardieu deitzen zena. Izigarriko mediku habila zen eritasun horiendako. Huna beraz eguna hitzartu eta nun hartzen nuen mediku horrek. Eta erran zautan:

— Xuxenez hemen behar duzu egon sei ilabete, maiatzaren ondar artio.

Emaztea, gaixoa, bera zen etxean. Bainan ba ginituen hauzoan hiru haur garajakoak. Goizetan jeiki eta ez ziren etxera joaiten, eta kasik beti etxean azita bat hartu eta jin behar zuten gure etxera jateko. Eta hola ene emaztea loriatzen zen. Haurrak itsuski maite zituen.

KANBOKO ERITEGIAN SEI ILABETERENTZAT

Horra beraz ni Kanbon etxe ederrean eta ongi artatua. Arras laketzen nuen. Eta bada klimak eta hemengo artatzeek izigarri untsa uzten ninduten. Horra zenbait ilabete nun diren joanak. Artetan joaiten nintzan Aldudera. Eta jendek kausitzen ninduten hobekitua. Eta hala zen. Zen-

bait klient ere hortik pasarazten nintuen. Eta biziki kontent joaiten ziren. Hamar bat segurik ba dira oraino direnak erremedioendako. Gero hor-ko medikuek kasu egiten diete. Hori medikuen arteko ixtorioa da.

Horra beti, denbora joanez bezala, ba medikuak eta ba nik adixkidantzak eginez, hobe-kiago joan ziren gauzak. Eta huna nun ene iguz-kiaren ondar distira emaiten dakon. Egun ba-tez erraiten daut.

— Bainan zuk nolaz ez duzu pentsione ge-
hiago hunkitzen?

— Ba, alta, ez, ez dutalakoan galdegin. Bai-
nan ez dautate gehiago eman nahi.

Aintzinetik galdeginak zauzkitan zer nuen
ofizioa, zenbat haur nituen, zer ari ziren, eta nahi
ukan zituen denen xehetasunak jakin. Eta erran
zautan:

— Ori, biba zu.

Eta orduan jauzi zen kaderan, nun erran bai-
tzautan:

— Soizu, M. Etxebarne, ni ez nu mundu
huntan deusek gehiago saltarazten injustiziak
baino. Eta afera hori ez dut nik hola utziko.

Eta oraino egin zuen lana neure bixtan. Har-
tzen du telefona eta galdegiten du Larresoroko

mediku xefa. Horra biak buruz-buru. Nahiago nuen hek biak izan ziten ni baino!

— Alo! Zu zira Dr. Carreau?

— Bai.

— Bon. Behar zaitut Etxebarne jaunaren kasuaz mintzatu. Ikusten duzu nor den?... Nik ez dut untsa konprenitzen ahal gizon hunek nolaz ez duen ehuneko 70 baizik hunkitzen. Hunen kasua ba dakizu nola den, radio eta etsaminetan barna. Hunek hunkitu behar du ehuneko 100.

Hortan kexatu zen iduriz puxka bat, bainan erran zakon:

— Igorriko dautzut gizon hau horrat, hemen ditudan radio eta etsamina guziekin, eta ikusiko duzu ea ez dutan arrazoin.

Huna nun ukaiten dutan berehala galdea Larresorora. Han behar nuen izan bi orenak eta erditako. Ez nintzan segur haren beha egon. Bera han baitzagon bortan ene beha. Behatzen du radioeri eta zenbait resultari formaren doia, eta huna zer erraiten dautan, alta ez dute sekulan aitzinetik erraiten:

— Emaiten dautzut ehuneko 100. Bainan ukanik ala ez ukanik, jinen zira ene ikustera.

Eta hara horrek ba duela orai zazpi urte hola dela. Alta ez da mediku hau pratikanta; bainan

zuzena. Eta gaurko egunean oraino ni horri es-
tekatu naiz. Enetako hori aita bat da. Erran be-
har dut orai nizan lekuan ez nindaikela egon,
hori hemen ez balitz.

JENERAL ADIXKIDEAREN AZKEN ORENEN LAGUN

Horiek hola, hara gertakari ederrak. Bainan
hau ere obligatua naiz kondatzera. Hau da be-
rri trixtea. Heldu den urrietan betetzen ditu naski
lau urte. Hemen sanatik joaiten bainintzan usu
Baionara, eta ene adixkide jeneral hori bizi zen
Marracq-en, Baionara sartzean. Hor ba zuen *vi-
lla* bat ederra eresia. Arrunt bere gustuko lekua
zuen. Emazteak nahiagoko zukeen bai harek hiri
erdian. Alabainan alimaleko liferentzia zuten
adinean. Emazteak hogoita zazpi urte gutiago!
Sobera liferentzia.

Hara nun bertze haunitz aldiz bezala geldi-
tzen nizan pasatzean. Eta horra nun arrapatzen
dutan ez-untsa, tripatik sofritzen zuela. Eta ba
zuen sukar puxka bat ere. Beti, han bulda bat
egonik, partitzen niz etxera. Eta handik bi edo
hiru egunen buruan, telefonatzen daut ea otoi
arrapatuko nakon neskato bat. Harendako zer-
nahi eginen nuen. Eta horra nun abiatzen nizan

neskato baten bila. Aski bilatu ondoan arrapatu nuen neskato gazte bat, hamabortz urtekoa. Bederatzi haurride ba ziren eta hori zen zaharrena. Neska bat pollita. Izigarri kontent gelditu ziren. Eta horra urran laugarren egunean nun ukaiten dutan bertze telefona dei bat. Neskatoa igorri behar izan zuela ez-untsaz etxera. Eta otoi bertze bat arrapatzeko. Ez baitzen orduan posible, orduan emazteak erran zautan:

— Ni orai, zu sanan egoiteaz geroztik, nihaur joanen nizako zenbait egunendako.

Ba dakizu, guk gero ere oraino haren beharra senditzen baiginuen. Eta horra nun joaiten den eta izigarri estimatu zuen jestu hori.

Ni egun oro joaiten nintzan. Sanatik hamabortz-hogoi minutaren bidea nuen. Bainan haren arreba baitzen mediku baten emaztea, harek erran zaukun:

— A, gaizoa! Ez du, ez, eskapurik. Kantzerria du.

Berak ez zuen oraino pentsatzen. Eta horra nun haren agonia guzia han egon ginen. Eni medikuak eman zautan baimena artetan artamendu batzu hartu eta han egoiteko. Han egoiten ginen beraz senar emazteak. Oroimena edo memoria atxiki zuen azken memento artio. Bai-

nan jarria zen dena hezur eta larru. Ikusi ginuelarik ondar mementoa hurbiltzen ari zela, erran gineen haren bi arreberi ea ez zakoten apezik ekarri gogo. Ba, guhaur okopatu ginen eta nihaur izanik Marracq-eko apezaren bila, xarmanki kofesatu eta komuniatu zen eta apezarekin batean otoitzak erran. Huna nun arratsean hamarrak airean heldu den azken hatsetara. Biharamunean nehork ez zuten arrosariorik haren eskuetan emaiteko. Beharrik nik ba nituen pare bat sake-lan eta heiekin joana da hilobira.

Hara horren ixtorioa hortan fini. Biziki pena eman zautan. Hura jaun haundia zen, baina guziek ttipi ttipia agertu behar Jainkoaren aintzinean. Handik bi urte gabe, bertze anea ere, kolonel zena, joan zen gaitz horrekin berarekin. Huna beraz ene bi adixkideak ni aintzin joanak. Orai gelditzen da anea bat Joseph bizi. Hura ere kolonel dena eta bizi dena Angoulême-n. Horien aita, jandarma hura, hil izana da 97 urtetan.

ENE AMAREN HILTZEA

Gure aita eta ama ere frango zaharturik joanak dira. Aita lehenik, laueta hogoita zazpi urtetan. Eta ama gero, laueta hogoita lau urte-

tan. Bainan hunen hiltzea ez dut uzten ahal erran gabe ondar mementoa nola pasatu zuen. Medikua izana zuten bezperan. Ezaguturik gibelera ari zela, hara nun medikuak erraiten dakon ene arrebari:

— Gaixoa, hunek ez du deus eritasunik, bainan da bururaino higitua.

Eta ez zuen bertzerik pitsik.

Ama gaixoak bere denbora guzian kantua izigarri maite izana zuen. Ba zuen boz bat paregabea eta berant artio galdegina izaiten zen kantuz artzera, noiz eta nun izaiten zirelarik apez gazteak, beren lehenbiziko meza emaiten zutelarik beren herrian. Eta denbora hartan ba zen orai baino gehiago. Izigarriko kantu pollitak kanta-arazten zazkoten denbora hartan omen.

Eta huna zer dutan erran nahi. Gorago erran baitut nola medikua izan zuten, horra bihar-munean nun ekar-arazten duten jaun erretora komunionearekin. Eta hantxet zauden lau lagun eleketan, horra ene amak nun erraiten dakon jaun erretorari:

— Orai eztazkitzie nexkek lehen bezain untsa elizako kantiak.

Erretorak ihardesten dako:

— Eztuzu uste?

— Ez, ez! Hara nola lehen kantatzen ginien «zerua saritzat».

Eta horra nun hor egiten dituen lau edo bortz hitz eta nun emaiten duen bere azken hatsa! Zer hiltze pollita! Gaixo ama!

ENE EMAZTEAREN GALTZEA

Horra haiek joanak. Eta orai gure jenerazio-nearen aldi. Arreba zaharrena ere joana da, bai eta ere anaia lauetan hogoita bi urtetan. Markatua izana zen bere 1914-1918-ko gerlaren ondorioz. Ez zen nik uste egunik pasatzen nun harek ez baitzuen orduko gerla aipatzen. Orai gelditzen dira lau haurride. Haiek ere biziki akituak. Eta gero ni, orai 74 urterekin nizana. Baina arras minberatua.

Alduden gehiago ezin egonez, huna nun deliberatu ginuen senar emazteek Kanbora jitea sanatorium batetara. Hor arrandatu nuen etxe bat nik nahi nuen bezalakoa. Hortan egon gira lau urte senar emazteak. Biziki uros ginen. Bakotxetan erran dakot ene emazteari gu bezain uros zenik ez zela nehon! Estimaten ginuen haunitz hola izaitea. Eta horra nun gertatzen zautan katastrofarik haundiena.

Egun bi ilabete, usaian bezala jeiki eta jausten gira askariaren egitera eta horra nun ukaiten dutan berria, hauzoko emazteak erranik, Ahatsako anaia hil izan zela. Eta orduan bagoazi berehala hilaren ikustera. Haurrideak denak penatuak han egoiten gira bildurik. Eguerdi jina eta nehor ez bazkaria prestatzeko. Erraiten dakot emazteari:

— Presta jateko puxka bat.

Eta heldu da jateko salara mahaiaren ezartzera. Eta horra nun ene ondoan berean zanpez erortzen den. Altxatzen dut, ustez zerbait trabak bota zuela, bainan ezagutu nuen berehala ba zela hor bertzerik. Han berean ohe baten gainera ekartzen dugu. Eta berehala begiak argitu eta erraiten dauku:

— Bainan zer da? Zer gertatzen da?

Bainan ikusi zuen berehala berak ez zela segur gauza hunik. Eta huna nun hasten den otoi-tzean. Agur maria erran ginuen denek gogofik. Denak harrituak ginauden. Ba zen ganbara hartan hamar lagun segurik. Eta huna nun bortz edo sei Agur Mariaren ondotik ixiltzen den. Nik orduan berean esperantxa galdu nuen. Segidan anbulantza ekar-arazi eta oren bat gabe Kanbo-ko sanan sartzen dut. Segidan ene medikua han zen eta ezarri zakoten xortakaria edo *goutte à*

goutte-a eta egin ahal ziren guziak. Baina debalde. Orena jina zen. Halako osagarrian zen presuna...

Errana da beti herioa jiten dela ohoin bat bezala eta ez da segur gezurra. Aintzineko zortzian tentsioea zuen 14-7, eta sanara ekarri nuelarik 24. Zerk egin dako haren hola goititzea? Menturaz han ene anea hura hilik ikusteak? Hola iraun zuen hiru egun eta gero pausatu zen bate-re senditu gabe. Ehorzketa edo enterramendua egin zakoten guziz ederra.

Eta orai ni naiz gelditzen maluros, osagarri-rik ez eta pena izigarri hori bizkarrean. Orai zer gelditzen zaut? Otoitz egitea eta gure Jaunari galdegitea nahi duelarik har gaitzan eta oren hortako beti prest egon gaiten.

AURKIBIDEA

<i>Aitzin solasa: Erramun Etchebarne.....</i>	7
Liburu honen historia laburra.....	15
Eskola.....	17
Anea eta oseba gerlan hilak.....	18
Bordazain joan beharra.....	20
Eskolarateko bidean hauzoko haurrekin.	22
Bi mutiko eta nexka bat beti elgarrekin..	23
Hameka urtetan Iratin bordazain.....	25
Lehen eguna eta lehen gaua bakarrik mendian.....	28
Beste bi bordazainekin.....	31
Orgak argirik gabe.. Prozadura.....	32
Bi jandarme seme etxolan.....	34
Lau-bortz ardi joare.....	36
Don Karlosen sekretarioa bordazain!.....	38


Tabako hazia erein eta ostoa sal.....	41
Tabako egitea ez haizu eta guardak etxolara	43
Osaran behi markatzailea.....	44
Haltz ondo bat mañadera egiteko.....	46
Lera batentzat hazpa gaiak.....	47
Oihanari norbaitek su eman.....	49
Anaia gerlatik jin eta.....	52
Donibane Garaziko jujearen aintzinera deitua.....	54
Hogoita hemeretzi pasa sukarrekin, oinez etxera.....	56
Suge biperak gizon bat ausiki eta ni mediku orde.....	59
Harri bati kontra burua arraildu eta hil.	62
Sei pittika astoaren gainetik behereko errekara.....	63
Petrineko eta Gazteluko etxolako berriak	67
Lauetan jeiki, ardiak bildu, deitzi eta gasna egin.....	69
Xuberotar artzain batekin hasarreturik...	70
Soldado joaiteko tenorea.....	73
Eskual-Herritik urruntzen eta Kaskoin Herrian sartzen.....	76
Lehen gaua <i>lieutenant</i> -aren ganbaran....	78
Urte bat soldadogoa egin eta etxera.....	81
Lehen hargin lana: etxeko arditegia.....	82
Baionan apendiz.....	84
Sant-Izpirituko koralean kantari.....	85

Nausi bat perfeta.....	88
Lehen hamabortz egunak Alduden.....	89
Hogoita lau urtetan enegain Alduden....	92
Esnausuko eliza emokatzeko galdea.....	93
Emazte gaiaren bila Esnausun.....	95
Ene lehen etxe berriak Alduden.....	97
Lehen ezker pareta: Monlong-ena.....	99
Eskola libroa borda zahar batean.....	102
Plaza libroa eta trinketa berria	
Lazkanotegi apezari esker.....	103
Predikua hasi eta lurrera erori	
perlesiak jorik.....	106
Konduen gainetik kalapitan!.....	108
Lehen korala eta kermeza Alduden.....	111
Bost haur: lau neska eta mutiko bat.....	112
Hego Amerikan eta Laos-en misionest....	113
Liban-en eskola emaile.....	115
Hourcabie kolonelaren ikustera.....	118
Kolonelarekin komentura.....	121
Semea Auch-en feria egunean kantuz....	126
Ostatuan kantuz Operako kantari baten	
aintzinean.....	130
Soldadogoan ukan brontxitaren ondorioa	133
Kanboko eritegian sei ilabeterentzat.....	140
Jeneral adixkidearen azken orenen lagun.	143
Ene amaren hiltzea.....	145
Ene emaztearen galtzea.....	147

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALZAINDIA
BILBO
67630
1990 URR. 5
1008476

1008476
Bo-911





AUSPOA
LIBURUTEGIA